

JAKIN

PAULO AGIRREBALTZATEGI
IÑIGO ARANBARRI
XIPRI ARBELBIDE
BALEREN BAKAIKOA
XABIER ETXANIZ
JOSE RAMON ETXEARRIA
TXOMIN HEGUY
LAURA MINTEGI
ANDRES URRUTIA
JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL
EUSKAL KULTURA 1994

JOAN MARI TORREALDAI
EUSKAL LIBURUGINTZA 1993

85

AZAROA-ABENDUA 1994



JAKIN

85

AZAROA-ABENDUA 1994



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Turismo Departamendua



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

| | | |
|---|----------------|---|
| Z | ENBAKI HONETAN | 7 |
|---|----------------|---|

| | | |
|---|-------------------------------|----|
| G | AI NAGUSIA | 11 |
| | PAULO AGIRREBALTZATEGI | |
| | IÑIGO ARANBARRI | |
| | XIPRI ARBELBIDE | |
| | BALEREN BAKAIKOA | |
| | XABIER ETXANIZ | |
| | JOSE RAMON ETXEBARRIA | |
| | TXOMIN HEGUY | |
| | LAURA MINTEGI | |
| | ANDRES URRUTIA | |
| | JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL | |
| | EUSKAL KULTURA 1994 | |

| | | |
|---|--------------------------|----|
| I | IBURUAK | 65 |
| | JOAN MARI TORREALDAI | |
| | EUSKAL LIBURUGINTZA 1993 | |

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1994ko PREZIOAK

| BARRUAN | HARPIDEDUNA | EZ HARPIDEDUNA |
|-------------|---------------------|--------------------|
| Harpidetza | 4.500 pta. | — |
| Ale arrunta | 750 pta. | 1.125 pta. |
| KANPOAN | | |
| Harpidetza | 5.000 pta. (235 FF) | — |
| Ale arrunta | 850 pta. (40 FF) | 1.300 pta. (60 FF) |

SUMMARY

BASQUE CULTURE 1994

VARIOUS AUTHORS

For this last issue of the year we have solicited the collaboration of various authors, writers, people who are linked to the mass media, to University, Culture etc... with the purpose of summing up what 1994 has meant to Basque Culture. Paulo Agirrebaltzategi, Iñigo Aranbarri, Xipri Arbelbide, Baleren Bakaikoa, Xabier Etxaniz, Jose Ramon Etxebarria, Txomin Heguy, Laura Mintegi, Andres Urrutia, Jose Mari Velez de Mendizabal have contributed to this objective. The items dealt with are

diverse: the 50th anniversary of the weekly magazine *Herria*, the Basque encyclopedias, the socialists and the Basque language, the Guggenheim museum of Bilbao, the relationship between culture and politics, the agreement between the Basque Government and *Euskaldunon Egunkaria* and *AEK*, the nationalization of culture and education, the future of the Basque Museum of Bayona, the absence of intellectuals, the lack of a planning in the National Culture, etc.

THE BASQUE LITERARY PRODUCTION OF 1993

JOAN MARI TORREALDAI

Joan Mari Torreal dai, sociologist, presents, as every year, a study of the publication of Basque texts in 1993. The research is divided into three parts: the study of the publications according to themes, literary genders,

tendencies of the different Publishing Companies, etc.; a classification of the publication according to the schemes of UNESCO; and thirdly, a complete bibliographical list of the books published in 1993.

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 85. zenbakia da eta 1994ko azkena.

Urteburuko zenbaki honen gai nagusitzat urte bereko kultura-gintzaren balantzea hartu dugu, duela bi urte hasitako ohi-turak izan duen arrakasta kontuan izanik.

Euskaltzalegoak euki baduen eta guk euskaldungoaren normaltasuntzat pozik aitortzen dugun ikuspegi-aberastasuna eta sentsibilitate-aniztasuna jaso nahi izan dugu hemen. Hamar lagun bildu ditugu lan horretarako. 32ri eskatu, eta 10ek erantzun. Ez da erraza gertatzen nonbait. Meritua are handiagoa dute erantzun dutenek. Eskerrik beroenak gu guztion aldetik.

Iruzkina, gogoeta nahiz kritika mailan hainbat alor eta gai jorratu dute hamar lankideok. Batzuk bakarrik aipatzearren: *Herria* astekariaren 50. urtemuga, Euskal Entziklopediak, sozialistak eta euskara, Guggenheim-en Bilbo egoitza, kultura eta politikaren arteko harremana, ekonomiaren egoera, *Eus-*

kaldunon Egunkaria-k eta AEKk Eusko Jaurlaritzarekin egindako akordioak, kulturaren eta irakaskuntzaren funtzionari-zazioa, Baionako Euskal Erakustokiaren etorkizuna, Irisarriko Ondarearen Egunak, intelektualgoaren ausentzia, Kultura Nazionalaren Plangintzarik eza, intsumisioaren kultura, etab.

Liburuak sailean, azkenik, 1993ko euskal liburugintzaren azterketa eta fitxa bibliografikoa eskaintzen dizkigu Joan Mari Torrealdai. Azterketaren sailean azpimarratzekoak dira editorialgintzaz egindako oharrak eta Estatu espainoleko beste hiru hizkuntzetako liburugintzarekin egindako konparazioak. Argiago gelditzen da orain, bai “zer” produzitzen dugun eta bai “nola” produzitzen dugun. Iaz bezala aurten, hirugarren urtea jarraian, urteko azken zenbakian ematen dugu lan hau.

G AI NAGUSIA

PAULO AGIRREBALTZATEGI

IÑIGO ARANBARRI

XIPRI ARBELBIDE

BALEREN BAKAIKOA

XABIER ETXANIZ

JOSE RAMON ETXEARRIA

TXOMIN HEGUY

LAURA MINTEGI

ANDRES URRUTIA

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

EUSKAL KULTURA 1994

EUSKAL KULTURA 1994

PAULO AGIRREBALTZATEGI

«HERRIA»: 50 URTETAKO KRONIKA

Martxoaren 17ko zenbakian, 2.246.enean eman zigun berria *Herria* astekariak: 50 urte betetzen zituela aurtengoan. Editoriala merezia zuen horrek, eta editorialean eman zigun berri zuzendariak. Geroko zenbakietan astero-astero gogoratu digu aldizkariak, bere lehen orrialdean, urrezko eztaiak ospatzen ari garela. *Eskualduna* aldizkariaren jarraipen gisa kale-ratu zen *Herria*. Hura izan zen euskarazko lehen aldizkari euskalduna: 1887an sortua; beste hau da seguruenik bizirik dirauen euskarazko aldizkaririk zaharrena. 1944ko azaroaren 16ko data darama aldizkariaren lehen zenbakiak. Pierre Lafittek sortu zuen eta bera izan zen zuzendaria 25 urtez, 1970erai-

no. Emile Larrek eman ditu zuzendaritzan beste hogeitabost urteak. Bada iraupena aldizkariarena, eta zuzendariena! Ipar Euskal Herriko berrogeita hamar urteko kronika bizia da zinez *Herria*.

Zorion, beraz, eta urte anitz aitzina so!

Ez dago zalantzarik guztiz garrantzizkoa izan dela aldizkaria Iparraldeko euskaldunentzat: herritar xumeentzat eta ika-siangoentzat. Urte luzetan ia horixe besterik ez dute izan haiek euskarazko irakurgai; eta seguruenik bertako idazle gehienek *Herria* kazetan argitaratu dituzte beren lehen lerroak. Iparraldeko euskalduntasunari eusteko baliabide funtsezkoa izan da zinez. 4.000 abonatu inguru omen ditu aldizkariak. Ez da sobera. Baina ez da gutxi 240.000 biztanle gutxiren arteko euskaradunen gutxiengoarentzat: jakin gainera, euskaraz eskolatzeko aukerarik ez dutela izan euskal hiztun horiek, eta aldizkariak berak egin behar izan duela alfabetatze-lana.

Areago, kontuan eduki behar dugu Euskal Herri osoan hainbat urtetan euskarazko albistari bakarra izan zela *Herria*, ez *Argia*-rik ez *Anaitasuna*-rik eta ez bestelakorik ez zen garaietan. Ipar Euskal Herria izan dugu aitzindari euskarazko kazetaritzan, euskal kulturako beste zenbait sailetan bezala: bertan argitaratu zen euskarazko lehen liburua; Udako Euskal Unibertsitatea ere Baionan hasi zen. Hala ere, *Herria* ez omen da ezaguna Hegoaldean. Aitortu behar da, dena dela, aldizkariak beti ukan duela Euskal Herri osoaren ikuspegia: garai batean «Hego-alde» saila zen, egun «Euskal Herrian gaindi» dena, Hego Euskal Herriko berriak bereziki emateko. Jakina, iparraldetarri hegoaldeko berriak emateko da saila zuzenean, eta ez hegoaldetarrentzako. Baina hegoaldetarrentzat ere baliagarria da Iparraldeko eguneroko kronika eta bertatik Euskal Herri osoari buruz duten ikuspegia ezagutzeko. Ikuspegi-tako bat bederen: aski hedatua.

Gaur egun euskarazko aldizkari nazionalen eta aldizkari lokalen multzo handiak bereizten diren honetan, *Herria* kazetak formula mistoa aurkitu zuela esan daiteke. Ezaguna da horren sail zabalena, biziena eta bereziena «Herriz-herri» duela, Iparraldeko herrietako berri xeheak ematen dituen. Nik

ez dut zalantzarik, *Herria* kazetak asmatu egin zuela bere formula egokia; 50 urteak ez al dira froga aski sendoa? Egia esan, 50 urteotan aldaketa oso txikia egin du aldizkariak, egiturari, edukin orokorrari eta konposizioari dagokienez. Kazetaritzak, ordea, bide luzea egin du urte horietan, arte grafikoan ahalbidetako oso zabaldu dira eta irakurlearen gustuak aldatu egin dira. Ez ote tenore ona 50. urtea, *Herria* kazeta biziagotu eta modernotzeko, kolorea ere sartuz?

EUSKARAREN ERABILERA ZUZENA

1994ko otsailaren 24-26 bitartean egin zituen Euskaltzaindiak bere I. Jagon Jardunaldiak, euskararen erabilera zuzenari buruzkoak. Gaia guztiz garrantzizkoa noski, euskararen normalkuntzaren bidean. Hizkuntza biziaren normalkuntza linguistikoa —corpusa— eta horren normalkuntza soziolinguistikoa —statusa— elkarrekin guztiz lotuta doaz. Euskararen bizitasun sozialaren neurria erabilerak ematen badu, euskara zuzenak eta egokiak ematen du hori gehiago erabiltzeko arrazoia. Berreskurapen-prozesuan dagoen hizkuntzaren erabileraren kalitatea eta kantitatea aski lotuta joan ohi dira. «Euskararen kalitatea» aipatu zuten askok egun haietan; euskara ikasten ari denari erabileraren kantitatea eskatzen diogu, eta badu horrek oinarririk, erabiliaren erabiliaz iritsiko delako euskaldun berria hizkuntzaren kalitatera ere —hizkuntzak mintzatzen ikasteko bidea da hori—; baina ikasten ari denak, eredu egokia nahi du, bere ahaleginari helburua seinalatuko diona. Kalitate oneko euskara bakarrik izango da benetan eragile, hori ikasten ari direnentzat eta herritarrentzat oro har.

Arrazoi didaktikoa da hori; bada, ordea, bestelako arrazoi etikorik ere. Ondasun kolektiboa da hizkuntza; jendaurrean hori erabiltzen duenak bereziki lanbidez horretan diharduenak, eta areago bere funtzio publikoa horretan betetzen duenak, ondasun kolektiboari zor dion arduragatik eta hizkuntz komunitateari zor dion begiruneagatik, zaindu behar du hizkuntzaren erabilera zuzena.

Badirudi denok bat gatozela, hasteko, horretan. Baina zuzentasun hori kontrolatzen edota horretarako neurriak har-

tzen hasten garenean sortzen dira egonezinak, gatazkak eta sarritan haserreak. Horixe gertatu zen Jardunaldien ondorioz kaleraturiko agiriarekin, euskararen erabilera publikoaren zuzentasuna bermatzeko neurri administratiboak eskatzen baitzituen. Oso mingarria da hizkuntzazko kontrolaz mintzatzea, boterearen eta hizkuntzaren arteko eremu bihurrian sartzen baikara; ezaguna da boterearen —politikoaren, sozialaren, ekonomikoaren, kulturalaren, ideologikoaren, eklesiastikoaren— tresna nagusietako bat dela hizkuntzaren —hizkeraren, gramatikaren, lexikoaren— kontrola eta manipulazioa. Baina ondasun publikoa baldin bada euskara, nork ukatuko du euskal administrazioak horren erabilera publikoa eraentzeko eskumena duenik?

Bestalde, hizkuntzaren kalitatea neurtzea zailagoa dela kantitatea neurtzea baino; hasteko, zuzentasun gramatikalak eta fonetikoak ez dute seguruenik kalitatearen neurria ematen; estilistikak eta erretorikak markatzen dute gehiago kalitatea; baina gramatikazko eta fonetikazko gutxieneko arauak betetzetik —zuzentasunetik— hasi beharko dugu kalitateaz hitz egitean ere; jakinik batez ere gramatikaren eta fonetikaren mailako okerrak ezjakintasunatik ezezik, trakeskeria eta arduragabekeriatik datozela sarritan.

Administrazio publikoa ez da, jakina, berez hizkuntzaren zuzentasunari eta egokitasunari buruzko irizpideak ezartzeko gauza. Horretarako daude, ordea, erakunde akademikoak, eta euskarari dagokionez, bereziki Euskaltzaindia. Hor du euskal administrazio publikoak gidaritza eta baita nolabaiteko oinarri juridikorik ere. Seguruenik, bestalde, Euskaltzaindiak ez du lehen hitza irizpideak lantzean, hiztunak daudelako hasieran eta hizkuntzalariak tartean; baina badu azken hitza. Horren itzalean babestu beharra dauka administrazio publikoak.

Euskaltzaindiko batzordeak emandako agiriaren kontrako erreakzioa —gehiegizkoa eta lekuz kanpoko, nire ustez— Jardunaldietako eztabaiden eta iskanbilen ondoren etorri zen; guzti horren aurrean hiru gogoetatxo datozkit niri burura: a) Euskararen erabilera zuzenari buruzko Jardunaldiak istilutsuegiak izan ziren; badirudi batak besteak eta besteak bata kri-

tikatzeko eta salatzeke erabili zirela; eta badirudi euskararen erabilera okerrak kritikatzek min handia ematen diola erabilera zuzena zaintzera behartuta dagoen askori: telebista, irratia eta prentsako langile izan edo idazle, funtzionario, irakasle eta erakunde publikoko ordezkari izan. Minak min, beharre zkoak ziren horrelako Jardunaldiak; euskal gizarteko kezka handietako bati erantzun zioten, eta agian dagokienez artean ardura zabaltzen lagundu zuten. b) Aipaturiko agiriaren kontrako erreakzioa funtsean Euskaltzaindiaren barrutik etorri izanak erakundearen barne-arazo larria nabarmendu zuen: leialtasunarena, eta hori zaintzeko disziplinarena; norberare n askatasunaren izenean zurikatzen dira horrelako jokabideak; eta euskaltzain bakoitzak barruko arazoak harrotzeko eta kritikak ipintzeko komunikabideak erabiltzea batzuetan zilegi —eta beharrezko ere— izan daiteke, moduak eta moduzkotasunak gordez gero; dena dela, barruko batzorde ofizialen baten eskutatik ateratako dokumentuaren aurka erakundearen barrutik sinadura bila hastea ez zait leiala ez zilegia iruditzen, aurretik barruan eztabaida eta kritika egiteko aukera eskatu ez baldin bada; horrezaz gain azpijan sistematikorako joera balego, Euskaltzaindiak neurriren batzuk hartu beharko lituzke. c) Badirudi bizkaieraren izenean euskara batuaren bidean egoinezina agertu izan duen zenbait lagunen oniritzia eta sinadura jaso zuela agiriak; zer esan nahi du horrek? Badela Bizkaian sektorerik Euskaltzaindiarekin euskara batuarekiko gatazka konpongabea eta iraunkorra duenik? Guztiz arriskutsua eta kaltegarria litzateke hori Euskaltzaindiarentzat eta euskararen normalkuntzarako. Bizkaieraren euskara baturako ekarpen espezifikoa bideratzeko neurri konkretuak hartu beharko lirateke.

ENTZIKLOPEDIGINTZAREN GARAIA

Entziklopedia orokorra eta unibertsala lantzea hizkuntza modernoan modernotasunaren adierazgarrietako bat da. Froga gogorra da, bestalde, edozein hizkuntzarentzat horrelako lehen entziklopedia lantzea. Zorionez euskaraz lehen froga hori gainditzen ari gara. Duela hiru bat urte hasi zen Lur argitaletxea bere 10 tomatoko Hiztegi entziklopedikoa kaleratzen; dirudienez, kalean izango da hamargarren tomoa, lerro hauek

argitaratu baino lehen. Elhuyar-ek, berriz, ihazko azaroan kaleratu zuen *Hiztegi Entziklopedikoa*, euskarazko lehen entziklopedia osoa, ia bi mila orrialdeko tomo mardul bakarrean.

Bitartean, orain dela bi urte, EUSENOR enpresa eraiki zuten UZEI, Elkar, Elhuyar eta Ikastolen Elkartea erakundeek, datu-banku entziklopedikoa euskaraz eratzeko, eta mota eta maila ezberdinetako entziklopediak eta erreferentzi materialak eskaintzeko, inprimaturik, baliabide telematikoz nahiz argitalpen elektronikoz. Proiektua, beronen osotasunean abiatzeko urratsak egin bitartean, *Gazteen Entziklopedia* izeneko obra tematikoa argitaratu du, zortzi tomotan (zortzirehun bat unitate didaktiko, alfabetoz ordenatuta); eta Elhuyar-en izenean ateratako *Hiztegi Entziklopedikoa*-n oinarrituta, tamaina ertaineko beste hiztegi entziklopediko bat prestatzen ari da, 8 tomotan eskainiko dena.

Horiek dira datu laburtuak: Euskararen berri onak itxuraz. Indarrez eta bizitasunez hasi da euskarazko entziklopedigintza. Zalantzarik gabe, entziklopediaren urtetzat joko da etorkizunean aurtengo hau euskal kulturari: bi osoak kaleratu, beste baten argitalpena burutu, laugarren bat abiatu. Batek baino gehiagok pentsa dezake entziklopedien lasterketa hasi ote den, ordena handirik gabe gainera, eta elkarren lehia azkarrean. Entzun ere egin da hortik: «Betikoa! Oraintxe ezer ez, eta berehala bi parekoak; zenbat aldiz gertatu ote zaigu horrelakorik euskal kulturari?».

«Entziklopedien gerra» ere aipatu zen orain dela hilabete batzuk. Eta seguruenik historiara igaroko da 1993an Lur argitaletxeak ipini zion eraso EUSENOR proiektuari, non zenbait euskaltzainen ondoan, alderdi politikoez ere parte hartu baitzuten. Gauza gehiegi nahasi ziren afera hartan, euskaltzainen dokumentutik hasita: Erakunde publikoen subentzio-politika, euskararen eredia, informatikaren zeregina entziklopedigintzan... Hori guzti hori interes komertzial jakinen zerbitzuan ipintzen baduzu, saltsaren lapikoa jarria duzu sutan. Eta gainera politikariak izendatzen badituzu sukaldari, auskalo zer aterako den lapiko horretatik! Izatez, politizatu egin zuten guztiz EUSENOR proiektu kulturala alderdi politikoez. Lapiko

horretatik ez ateratzera, kiskaltzeko arrisku bizia zuen proiektuak. Atera behar izan zen nonbait. Sukaldez aldatzeko. EU-SENOR bezalako proiektua ezin zitekeen polemika enpresarial eta politikoen artean bideratu.

Harrigarria da, ordea, benetako polemika —eztabaida, elkarrizketa— kulturalik ez zela bideratu eraso hartatik. Jaulkitako —jaurtitako—salaketek agian ez zuten eztabaidarik suspertzeko asmorik ere; bestelako helbururen bat lortu nahi zuten nonbait; eta hori lortu zutenean, eztabaida kulturalak ez zeukan zertan jarraiturik. Hala ere, nire ustez, gai larriak harrotu ziren lau euskaltzainen dokumentu hartan, eta harenguruko deklarazioetan. Seriotan kaleratuak izanez gero, eztabaida agortezinerako gaia ematen zuten. Eta merezi ere, merezi zuen seguruenik. Baina berehala geratu zen etenda; ia abiatu ere egin gabe.

Erakunde publikoen subentzio-politika beti izan da eztabaidagarria, eta halaxe izango da aurrerantzean ere seguruenik. Horren azpian bazegoen, baita, erakunde publikoek euskarazko proiektu kulturaletan izan behar duten partaidetza-modukoari buruzko arazoa ere. Salaketa oso zehatza izan zen: konkurrentzia desleiala erakunde publikoen aldetik. Gaia oso sakona da, eta kontu handikoa batez ere euskararen eta euskal kulturaren egoera honetan. Azpiegitura kulturalak sortzearen arazoak esangura guztiz berezia du hizkuntza gutxitueta-ko kulturagintzaren zelaian. Dena dela, euskal entziklopedigintzan ere ekimen pribatua bultzatzea eta aniztasuna egotea guztiz interesgarria dela uste dut; jakinez gainera, ekimen horiek laguntza publikoaren beharra izango dutela. Alor honetan ere ekimen publikoak ez du inola ere ekimen pribatua itotzera edo irenstera jo behar, hori bultzatzera eta indartzera baik.

Datu-banku entziklopediko handia lantzeak guztiz gaindizten du hiztegi entziklopediko edo entziklopedia jakin baten edo biren helburua; azken batez, Herri hau munduko informazio entziklopedikoaren zirkulazio-sare informatizatuan sartzea dago kontuan: ez bakarrik historiako eta munduko Herri eta kultura ezberdinetako informazioa eskura eta euskaraz eduki-

tzea, eta bai Euskal Herriaren informazio entziklopedikoa munduarentzat eskura ipintzea ere. Apostu hori jokatu beharra daukagu, munduko informazio-autopisten sare horretan zirkulazioan ipiniz geure datu-banku entziklopedikoaren autobusa ere. Ikuspegi horretatik guztiz gaindituta geratzen da eraso hartan beste gaia, aski faltsua zirudiena: entziklopedigintza modemoaren eta baliabide informatikoen arteko loturarena; ez dut uste zalantza-izpirik ere egon beharko lukeenik gaur egungo eta etorkizuneko entziklopedigintzak informatikaren baliabide guztietaz baliatu beharko duela bere fase guztietan: informazioa biltzean, informazioa lantzean, eta informazioa zabaltzean.

Testuinguru horretan kokatzen da oinarritzko datu-banku entziklopedikoaren izaerari buruzko eztabaida; badirudi kulturazko azpiegituren alorrean sartzen garela. Hala ere, nekez uler daiteke datu-banku entziklopedikoa, erakunde publikoen eskuetan. Zerbitzu publikoa izan beharko luke horrek, eta beraz datu-banku irekia; baina, bestalde, bere autonomia benetazkoa beharko lukeela uste dut.

Bazen eraso hartan beste gai bat, euskararen ereduarena, EUSENOR proiektua ez, baina beste kultur erakunde batzuk urtetan egindako lana astintzera zetorrena. Ez dakit zergatik, agian lotsagatik, beharbada beste hainbat arazo ez harrotzearen, salaketa hutsean geratu zen kontua. UZEIk egindako lana eta urtetan kaleraturiko proposamenak kritikagarriak izan daitezke; baina nekez esan daiteke inondik ere ereduren bat inposatu denik. Areago, UZEIrekin batera urte askotan euskalgintzako mundu zabalak landu duen euskara-eredua eta Lur-en Hiztegi entziklopedikoak erabili duena zertan diren eredu ezberdinak ez da erraza jakiten; lexiko- eta hizkera-joeraren bat edo beste markatzeak ez dut uste bestelakoen aurrez aurreko euskara-eredu berriren bat definitzen duenik. Ez dut inon definiturik ikusi oraindik bestelako eredu hori. EUSENORi zergokionez, nekez hitz egin zitekeen horren euskara-ereduaz, ze artean ezer argitaratu gabe baitzeukan. Eta geroztik atera duen obran eta Lur Hiztegi Entziklopedikoan eta Elhuyar-en Hiztegi Entziklopedikoan ez dut nik euskara-eredu ezberdinik aurkitzen. Besterik da, entziklopedia bakoitzak aurrean duen hel-

buruko erabiltzailea eta horren arabera aukeratzen duen maila, bai gaien aukeraketan, bai horien tratamenduan eta bai lexikoaren, sintaxiaren edo bestelako hizkuntz erregistroen maila.

Euskal entziklopedigintzak, oro har, entziklopedietako hizkera-eredua dauka landu beharrean, hori bai, euskararen hizkuntz eredu berberaren barruan ere. Hizkera «entziklopediko» horren gain, hiztegi entziklopediko edo entziklopedia bakoitzak —agian entziklopedi etxe bakoitzak— bere estiloa landu beharko du noski. Baina guzti hori eta euskara-ereduaren kontua ondo ezberdinak direla uste dut.

IÑIGO ARANBARRI

IBILTARIXANAK

Urrian izan ohi da urte guztirako egitasmoa agertzeko garaia, bai irakaskuntzari dagokionez bederik. Horregatik ez zuen gizartea ezustean harrapatu Gasteizen PSE-EEK euskararen inguruan burutu zituen topaketak. Bagenekien: bazuten zer ikasia. Bagenuen. Ikusteko zegoen bezalaxe. Eta egun haiek zer ekarriko zuten orpotik zen itaun nagusia. Bitxiak behintzat baziren-eta heltzen zitzaizkigun argazkiak. Bakarra ekartzearen, hizlari, komunikadore nahi bada, Martxelo Otamendi, esate baterako. Ikasle, argazkian bezain geldi, Rosa Diez bat, edo Ikastolen Federazioko eta Euskal Herrian Euskaraz-koen pizti beltza, Euskadi Irratiaren terminologia erabilita, Buesa jauna.

Ezustean ezetz esan dut arestian, argazkian bat falta baitut aipatzeko. Onaindia lehendik zetorren bidea urratzen. EAEko Kultura sailari eginiko markajea, Arregik azken urteetan AEK edo *Euskaldunon Egunkaria*-rekiko zeraman politikaren desblokeoa planteatzen, nolabaiteko sinpatiak ere sortu zituen irakaskuntzan, euskararen inguruko produkzioan zebiltzanen artean. Hainbestekoak non sozialistetatik inoiz gertu egon ez

den Argia batek, adibidez, etxekotasun harrigarritz agertzen zuen Onaindiari eskainitako alearen azalean: Marioren bidea. Sozialisten sektore euskaltzalea ere deitu izan zaien honek, bururik izatekotan, Onaindiarena baita argien, eta bere horretan bakarregi, ausaz Toribio Etxebarria baino ilunago agertzen dena.

Eta hortik sortzen diren galderak. Bat, alderdiak urteetako euskararenganako zabarkeria maila batzuetan nolabait baztertu duela ematen badu ere —hauteskunde-publizitatea kasu, katalandu gaituzte bederen—, badirudi guztiz fenomeno partziala dela, hots Nafarroan hobe dutela Orhiko txoriari begiratzea zerbaiten zain badaude. Euskara euskadizatzen den neurrian baita baliaigarria, «euskara ez da arma legez erabiltzekoa». Eta bi, hauteskundeetako emaitzen ostean, ikusteko dagoela zer maniobrabilitate utziko dioten alderdiaren barruan EAJri euskararen bataila irabazi ez dion Onaindiari. Ze, gauza bat behintzat argi dago: orain ez da lehen adina agertzen. Mintzagaia berarekin aldatu egin da, oso bestelakoa denbora gutxian. Baina Gipuzkoan Gobernadore Zibil euskalduna dago.

PIRAMIDEAK ETA KEZKA GEOMETRIKOAK

Jarria da azarotik La Salve beti tristearen zubipean Guggenheim museoaren lehen harria. Lehen, horrela erakutsi izan zaigu, eguneko egunkariak lurperatzen zituzten txanponekin batera harria lur gainean jartzean, geroak jakin beza. Ziur naiz Guggenheimek ez dela berripaperik zuztarretan, eta egotekotan artaziaz errenduta daudela. Txanpon lurperatuak. Bada sinbolo politik oraindik. Irabazlearen jugada.

Eztabaida honetan, zerbait egon bada, irabazlea izan baita. Esan dezagun, galtzailea galtzaile izan den neurrian irabazle. Arregi, hordagoa jotzen duenean behintzat, trabesa oso gogor egiten duten horietarik da. Bulego pribatu batek saldutako ideia bere egin, lurra bilatu eta etorri zaizkion olatuei dikea eraikita jasoko du Solomon R. jaunaren sukurtsal berria. Ez da proiektu asko izango honenbeste kritika jaso duenik. Ezker-eskubi egin ere. Arte-mundukoak batetik, makromuseoen juggedaz ohartarazi asmoz. Ekonomikoak bestetik, Bilbo aldeko

paisaia post-industrialia eta krisia lotzen zituztenenak. Eta nire gustorako interesgarriena, biak uztartzen zituen neurrian, Kultur Kezka-rena.

Interesgarria diot, museoaren aferaz gain, Arregik bere departamendutik sorturiko giro itogarriari arnasa emateko bentana bat ikusten zelako. Eta hortik agian hutsa. Denbora eta aurkuentuak arinago zihoazen teorizaturikoari irtenbide praktikoa eman nahi izan ziotenak baino. Arregik saltzen zuen produktuak gaztanberezko oinak zituen arren —behar-ezean oinarritua zegoen neurrian, gora Urolako trena!— politikak, denboraren kontra ireki eta zarratzen diren bulegoetako ateak, aurre hartu zion intelektuaren autodefentsako akanpada hari. Eta behin museoarena galduta ikusita, «hurrengoan elkar-tu behar diagu berriro ere, presupuestoak, laguntzena eta hitz egiteko», kezkek egunerokotasunean desegin dira. Barrualdi mingotsa, politiko ezin txarragoak izango ginatekeela eta Deustutik Alde Zaharrerantz paseatzen noalarik gero eta gorago hazten doazen paretak, Tere Irastorzaren baimenarekin, Derrotaren Fabula osatzen.

ERREDAKZIO-EZA

Abendua zen eta lokatza bezalakoxe euria ari zuen Aizar-nazabalen. Elkarrekin afaltzeko zain neukan lagunak atzamarrez telebista seinalatuz hartu ninduen: «Egin-en sartu dituk». Irudiak, jendea batera eta bestera. Almorzaren paperak Egin-etik atera dituzte. Zuzendaria ordenagailuen atzean. Notizia ematen zuen kazetariak ez zion inolako galderarik egin.

Hurrengo egunera arte itxaron behar izan genuen defentsaren boza entzuteko. Nik ez dakit horrelakoak inor komentitzeko esaten diren, ala komentzituerei jaten emateko. Baina Er-tzaintzak egindako miaketak, estiloa bera zuen edozein iritziz aldatzeko modukoa.

Eta hutsa izango litzateke horretan geratu izan balitz, estiloa eta belarri atzeko susmoa: ez da hori. Baina irailan Bueren epaileak Pepe Rei —galegoek ez dute i-z idazteko eskubiderik?— kartzelaratzeko agindua ematen duenean, zabarkeriak

izuari ematen dio bidea. Fotokopiarena hain froga ahula izanik, ezinbestekoa baita mendeku politikoa pentsatzea. Vinader etortzea gogora ez da kasualitatea izango, diot nik. Sanchez Erauskin. Petardoak Punto y Hora-n. Sutilago bere zabarrean hau. Eta Pepe —El español, gogoratzen?— Rei-ren kontra esandakoak ia Atutxa sailburua dutenean eledun bakar ematen du zer pentsatua. Zeren ETako kolaboratzaile bada zergatik ez dizkiote elektrodoak erakutsita beldurtu? Kantatuko du zerbait badaki. Ematen duen bezala zer pentsatua alderdien isiltasunak. Eta ez ez dakitelako afera horretan ez duela zerikusirik. Barne-Sailaren bertsioa zalantzan jarriz gero ondo ez dakiten zerbaiti laguntza ematen ari diren ustea dutelako baizik. Ajouria Eneako sindromea. Buelta ematen gaitz gertatuko den etika-mota bat da kazetariak eraikitzen ari direna. Horregatik hartzen du balio ia epikoa Mariano Ferrer-ek: «Adierazpen-askatasuna aberastasun soziala da». Sikiera norbaitek. Formazio zaharrekoa izan.

JAURLARITZA AMEBEN ERREINUAN

Udaberriak aurretik trazu mehez zirriborratutako hariak nola gorpuzten ziren ikusteko aukera ekarri zigun. Apirilean AEKekin lorturiko akordioari uztailan Egunkariarekin sinaturikoa gehitu zitzaion. Bazirudien zerbait aldatua zela EAJK kontrolaturiko administrazioetan.

Bat bitan banatzen da. Sofisma klasiko honekin bizitzen ohitu garenontzat ez da erraza gerra hotzaren amaierara ohitzea. Euskalduntzearen kasuan, borondate publikoko iniziatiba pribatuak ekarri du gobernuaren kopia, ez alderantziz. Orain, beharrezkoa izan du HABEren porrota akordioari azken bultzada emateko. Bere zentroen kontuak kitatuta, akats historiko nabarmena estaltzera hurbildu da Jaurlaritza. Beranduegi seguruenik. Baldintza kaskarretan eskola eman izanak aspaldi pasatu zion faktura Koordinadorari. Gasteizko administrazioak, datuak eskuan, —ai Sestoia, Sestoia— ez du inoiz begi onez ikusi AEK. 80tik hona behintzat. Eta honela, bihotza bitan, mesfidantza politikoak egoera paranoikoetara eraman du zenbait uri-buruetako militante. Azken Korrika-rako dirua emandako

zinegotziek alderdiaren epaiketa-batzordea ezagutu behar izan dute. Eta abar. Horregatik sinetsi nahi dut administrazioaren higadura izan dela arrazoia. Beste edozein, kontrol politikoa, adibidez, AEKren eta helduen euskalduntze-plangintzen hondamendia suposatuko luke.

Eta ikusia zegoen AEKrekin lortzen zena asmakizun estrapolablea gerta zitekeela. Egunkariarekin sinatu izanak amasberritzeko balio dezake, baina baditu bereak. Jaurlaritzak bigarrangoz ematen du amore, kontestu berean baina. Onaindia, eta Egunkariaren kasuan Gipuzkoako EA sakaka zetorkiela. Hondar-hauteskundeetan ateratako emaitzak ezin hobeak dira EAJrentzat hurbilketa hauek benetakoak direnentz erakusteko.

EREMU LATZ HONETAN

Eta urteko osteratxoa txori-begiz amaitzeko, gogoangarrietarik aipatu behar. Uztailean, Zarautzen, Eremuak 94 burutu baitzen, Eremu urriko hizkuntzetan eginiko fikzio-filmeen erakusketa eta lehiaketa. Deigarriena, nola esan, txikienganako errukiari izpirik ez uztea.

Aurkeztu ziren filmeen kalitatea ona izan zen, antolaketa-aldetik eremu urriko —ez gutxitu eta eremu urriko bereizten ere ikasi behar genuenik!— hizkuntzenganako errespetu ez ohi-koa, eta bertako zenbait elkarte profesionalen arteko lankidetzeta, gutxienik, poztekoa. Esperientzia honetatik bada gogoeta egiteko haririk. Nagusia, nik uste, aurtengo edizioan Afrikari emaniko tratamendua, ez bat eta ez bi, gehiago izan baitira eman zizkiguten filmeak. Aipatu hizkuntz tratamenduaz landa —frantseza, gaztelera edo ingelesa zubi baino ez, euskara lehiaketako hizkuntza ofiziala. Zer urrun dagoen Donostia Zarautzik—, erreallitatearen ikuspegi ezberdinak hobeto ezagutzeko baliogarri gertatu zela aipatu behar. Begiratu batera, errazagoa litzateke Europara mugatu eta harreman selektiboagoak lantzea. Baina exotismorik gabe, guretik toka edo noka, mendebaldeko zirkuituen blokeoa haustea eskertu zen jarrera izan zen. Kreole ezberdinetan emaniko fikzioak munduaren ikuspegi, kolonizatu izatearen alderik izugarriena erakusten dute. Mintzoarena. Eta guk badakigu hortik. Beltzak ez garen aldetik.

XIPRI ARBELBIDE

KULTURA ETA POLITIKA

Aurtengo gertakarietan azpimarra nezakeena da Antonio Campos, ikastolen federazioko lehendakariak EAJri ekarri dion sostengua azken hauteskundeetan eta horrek sortu dituen kalapitak.

Antonio Campos-en hautu horrekin ez naiz akort. Ez EAJ hautatu duelakotz. Beste edozein alderdi politikoren alde agin bazuen bere deia, nire ikusmoldea berdina izanen zen. Hona zergatik. Ikusmolde politiko askotako jendeak biltzen dituen erakunde baten buru da. Kargu horrek pisu bat ematen dio bere hautu publikoari. Funtsean, horregatik diote eskatu publikoki agertu zedin EAJren alde. Antzuolako ikastolako irakasle soil bat izan balitz ez zioten horrelakorik eskatuko, irakasle soil baten deiak ez baitu Euskal Herri guziko ikastolen lehendakariarenak daukan pisurik. Kargu hori daukanak ez dezake EA, EAJ, EE, HB, eta menturaz PSE eta PPko aita-ama batzuek ematen dioten konfiantza balia, alderdi horietarik bakar baten faboretan. Denek batera ematen dioten pisua ez dezake bakar baten alde balia.

Bigarren arrazoi bat bada, nire ustez, kultur munduan kargu bat duena ez dadin alderdi baten alde agertu. Gure mintzaira eta kultura aski segurik nahasten dituzte politikarekin. Nor ez da oroit «H» ETArene zioten garai hartaz? «H»ren aurka zinezko arrazoi bat ateratzea baino errazago zen hori erratea!

Behin baino gehiagotan idatzi izan dut askotan gogoeta nagoela, alderdi politikoen jokamoldeak ikusiz, heia euskararen zerbitzuko diren ala euskara duten beren zerbitzuko baliatzen. Ekologisten alderdia bezala, euskararen alderdi bat sortu behar genukeela idatzi izan dut, zor zaion errespetua ekar diezaioten gure mintzairari.

Euskarari egiten ahal zaion mesede handienetarik bat da, saltsa politiko guzietarik kanpo uztea. Euskararen alde direla? Ongi! Orduan euskaraz mintza daitezela, euskara dakiten

gizon eta emazteak eman ditzatela beren alderdiaren karguetan, hautagai-zerrendetan, diputazio eta jaurlaritzako karguetan. Eman dezatela beren sakeleko dirutik, eta kargu politikoak baldin badituzte, diru publikotik, euskaraz ari diren irratia, agerkari, ikastetxe, gau-eskola, elkarte eta gaineratikoen alde. Baina lanean hor ari direnak utz ditzatela bakean beren lana egitera, euskarak eman dieten pisua baliatzeko partez beren alderdiaren eta alderdikieren mesedetan.

Kultur munduko gizonak ere behar direla mundu politikoan egia da. Politika-mundura pasatzen direnetik utz diezaiotela kultur munduan daukaten kargua beste norbeiti, lan egiten jarraia dezakete kargurik gabe ere. Inkonpatibilitateak badira beste munduetan ere. Politika-munduan berean ez ditzake bi kargu baino gehiago izan gizon berak. Zergatik meta kargu politiko eta kulturalak?

Frantziako sindikatutan demagun, arduradunek ez dute beren burua hauteskudetan agertzeko eskubiderik. Uste dut salbuespen bakarra, Alderdi Komunista den, CGT bere adar sindikalarenkin. Baina denek badakite CGT, Alderdi Komunistaren sindikatu dela. Eta ez zait iduri Alderdi Komunista eredutzat har dezakegun.

Frantzian, prefeta, juje eta goimailako funtzionarioek ez dute beren iritzi politikoa publikoki agertzeko eskubiderik, are gutiago hauteskundeetan aurkeztekorik. Lege hori denek errespetatzen duten ala ez, besterik da, baina legea hor da. Hautagai bezala agertu nahi badute, beren kargutik dimititu behar dute lehenik.

Iduritzen zait, ikusiz euskararen egoera eta gure herria zein minbera den alde politikotik, kontuz ibili behar dugula alor horietan.

Zoritzarrez ez da horrela gertatzen. Eta egia aitortu behar dut, Antonio Camposen kontra erran direnek harritu naute. Alderdi politiko bat publikoki sostengatu duen lehena ote da? Iñazio Oliveri ez ote zen Gipuzkoako ikastolen lehendakari politikan sartu zelarik? Badakit Lasarteko ikastolaren lehendakaria Xabier Elizondo, HBko hautetsia dela denbora berean. Sargrario Aleman-ek ez ote ditu HBko hautetsi kargua eta Arturo Campion euskaltegiko lanak biak betan egin? Xabier Albiz-

tegieta Gipuzkoako ikastolen lehendakari eta ESB alderdiko arduradun zen. Arabako ikastolen kargu gorenetarik bat preso eman zuten ETarentzat egin zuen zerbaitengatik. Nor mintzatu da kasu horietan kultur kargua eta engaiamendu politikoa-
ren nahasketaz? Nola bada orain da sortu eskandalua, beste hainbeste aldiz gauza bera ikusi delarik? Kargu politiko eta kulturala, batere problemarik gabe uztartzen dituzten beste hainbeste badelarik oraino gaur egun!

Batere problemarik gabe, beren ustez bederen zeren eta, kolore askotako jendeak eman kargu kulturala, kolore bakar bateko alderdiaren alde baliatzeko tentazioa ez da ttikia. Gustatuko litzaidake Antonio Campos-en kontra mintzo diren horiek zerbait argitasun eman balezate beste kasu horietaz daukaten ixiltasunaz.

Hegoaldeaz mintzatu naiz, baina gogoetak iparraldeaz eginak ditut lehenik, hemen bainaiz ohartu, kultura politikaren zerbitzuko emateak dauzkan kalteez. Baionako murru pareta batzuetan ikus daiteke oraino tindatua: «Ikastola, ils cassent tout là», eta hori irakurtzen da 'ikaztula'. Horrek erran nahi du: ikastola, denak hausten dituzte. Ez da erratearen beharrik, ikastolaren etsaiek idatziak direla. Noiz ote? Ikastolen alde egin manifestaldi batzuk gaizki bururatzen ziren garai batean. Ikastolei on egin ote diete, koktail molotovekin bururatu diren manifestaldiek? Amalgamak egiten dituztela nigarrez ari baigara, ez ote ditugu guk ekarri amalgamak egitera horrelako ekintzekin.

Ikastolak denei irekiak direla erraten dugu. Laikoak direla. Apolitikoak. Manex Goihenetxe eta Jean Pierre Seiliez mehatxatu zituzten armak eskutan, begitarteak gorderik 1981ean, Herri Taldeek hartu nahi izan zutelarik Seaskaren kontrola. Seiliez-ek utzi zuen Seaskaren lehendakari kargua ondoko biltzar nagusian; Manex Goihenetxek idazkari nagusiarena. Ekin-tza apolitikoak izan ote ziren horiek? Herri Taldeei ala Seaskari zegokien bere lehendakari eta idazkari nagusiak hautatzea?

Euskal Kultur Erakundea sortu zelarik, Pizkundearen Biltzar nagusi bat izan zen Hazparnen. Pizkundeak hamar bat ordezkari izendatu behar zituen EKEren zuzendaritzarako. Gogoratzen naiz, bi baldintza eman zirela biltzar horretan orde z-

kari izateko: bat, ordezkari horiek euskara jakin zezaten. Beste, ez zezaten politika-kargurik izan, edo hautetsi, edo alderdi politiko baten arduradun bezala. Bera EAKoa eta Xarriton ez zen aurkeztu ordezkari bezala horrengatik. Baina hamar ordezkarietarik bat, erdalduna eta gizon politiko ezagun bat izan zen halere eta pisu handia dauka oraino EKEN, nahiz geroztik Biarritzeko axudant den eta behin baino gehiagotan zerrendaburu agertu den hauteskundeetan. Administrazio-kontseilu horretan bi sail badira, bat politiko eta administratiboena, bestea kulturalena, baina kulturalen sailean sartu da iparraldeko politiko ezagunenetarik bat.

Geroztik behin baino gehiagotan sartu dira kultur munduko arduradunak saltsa politikoan. Saltsa erran dezakegu zinez, saltsak izan baitira EAK «Abertzaleen Batasuna» deitu mugimenduak hartu bidez besterik hartu duelarik behin baino gehiagotan. Seaskaren eta Euskal Kultur Erakundearena Lehendakariak izan ziren sostengu komitea sortu zutenak. «Abertzaleen Batasunaren» alde botua eman zuten %6,92 zuten berekin. %93,08 beste nonbait ziren. Harritzekoa ba ote da %93,08 hori mesfidatzen bada gure elkarte eta mugimendu kulturalerik, kultur mugimenduetan sartuz hautu politiko bat egi-ten dutela uste baitute? Ez dugu ahantzi behar, iparraldeko euskaldun gehienak ez direla «abertzaleak».

Nork sinetsarazi gero, euskararen kontra aitzaki bila da biltzanei, kultura eta politika bi gauza ezberdin direla?

Beren interesa delarik badakite politika eta kulturaren autonomia eskatzen. Europako azken hauteskundeak izan direlarik, Simeoni eurodiputatu Korsikarraren zerrendan sartu da iparraldeko hautagai-andana bat. Xalbador ikastegia bisitarazi zioten Korsikarrari. *ENBATA* astekariaren lehen orrialdean ikus zitekeen ondoko ostegunean, Simeoni Xalbador ikastegiaren atarian. Abertzaleak bi taldetan ziren: batzuk Simeonirekin joatearen alde, besteak aurka. Xalbador ikastegiko zenbaitek protestatu zuten, politikoki haietaz baliatu zirela sentitu baitzuten. Arrazoi zuten.

Baina hona non, azken urri honetan Xalbador ikastegiaren festa finkatua zuten ingande berean gertatu den Makean,

IKren presoen eguna. Xalbador ikastegiaren festa beste egun batera gibelatu dute, Makeari kalterik ez egiteko. Pentsa dezakezuen bezala, *ENBATA*k ez du huts egin: kultura eta politika uztartze hori salatu du. Bi gertakari horiek garbiki erakusten dute, batzuk ala besteak akort direla ikusteko kulturak eta politikak ez dutela nahasi behar. Beraiek hunkituak direlarik, batzuek ala besteak senditzen dute zer kalte ekar dezakeen nahaste-borraste horrek. Baina gizon berak direlarik arduradun edo alderdi politiko edo kargu publikoa batean, zein handia den kulturak daukan indarraz baliatzeko tentazioa?

Ez, Antonio Campos-ek ez zuen EAJ sostengatu behar, baina maila horretako karguak dituzten besteek ere, politikatik at egon behar dute.

BALEREN BAKAIKOA

EKONOMI EGOERAZ

Ekonomia depresiotik irteten ari omen da. Izan ere, bi edo hiru urte luze igaro ondoren, badirudi ekonomia bizkortzen ari dela. Lehenengo berri baikorrak EEBBetatik etortzen hasi zirenen, Barne-Produktu Gordina (BPG) uste baino gehiago hazten ari zelako. Halere, geroago hazkunde hori zertxobait moteldu egin da, baina zalantza gutxi dago egoera hobera egiten ari dela, nahiz interes-tasak igotzeko arriskuan egon, inflazioa pizten ari dela-eta.

Europako Batasunean ere ildo honetatik doa ekonomia, baina hazkunde-tasak apalagoak dira. Eta antzeko zerbait gertatzen da Espainiako estatuko ekonomiarekin, hemen ere uste zen baino gehiago hazten ari baita BPGa. Jakina, aurrakusi ziren zenbaki makroekonomikoek ezer gutxi balio dute gobernu zentralak, ohizkoa denez, aurrikuspen horiek, behin eta berriro, doitu behar izan baititu.

Egoera hobea honekin lotuta, Espainiako estatuan langabetu-kopurua zertxobait murriztu da garai honetan, INEMek

ematen dituen datuek honela adierazten dute behintzat. Izan ere, azken sei hilabeteetan, jarraian, kopuru hori urritu egin da, nahiz urriketa hori espektakularra ez izan. Baina ikusi denez, behin-behineko iraupena duten lanpostuak dira eta turismoarekin zerikusia dutenak, udaldia igaro ondoren, Irailetik hasita, berriro ere, langabetu-kopuruak gora egin baitu. Eta honen guztiaren ondorioz, barne-kontsumoak hazkunde negatiboa dauka; beraz, norentzat ekoizten ditugu ondasunak eta zerbitzuak egunetik egunera gehiago produzitu eta kontsumo-ahalmen txikiagoa badugu? Ekonomi sistema honek ondo funtzionatzeko gehiengoak egunetik egunera okerrago bizi behar du, hori da behintzat datu ekonomikoak adierazten diguna; beraz, non egon liteke prozesu honen muga?

Hemendik atera daitekeen ondorioa: langabezia luzerako daukagu. Izan ere, uzkurraldian lanpostu ugari galtzen dira, eta bizkorraldian, berriz, tantaka sortu. Beraz, ekonomi egiturak aldatzen ez diren bitartean, egunetik egunera jende gutxiagok egingo du lana, eta egiten duenak egoera kaxkarragotan. Hori ziurtatzea ez da batere zaila. Baina, non aurkitu irtenbideak? Orain arte proposatu direnak: lanorduak murriztu, inbertsioak bultzatu, interes-tasak apaldu, pizgarri fiskalak eratu etab., ez dira gai izan gauzak gehiegi mugiarazteko.

EKONOMI ERAKUNDE BERRIAZ

NAFTA (North American Free Trade Association) 1994ko Urtarrilaren lehenean sartu zen indarrean. Elkarte ekonomiko hori Kanadak (27 milioi biztanle), Mexikok (87,8 milioi biztanle) eta EEBBek (252 milioi biztanle) osatzen dute. Beraz, 367 milioi biztanleko ekonomi elkarteak eratzten ari dira hiru kide hauek. Halere ez da pentsatu behar guztiak kontsumitzaileak direnik, ahalezko kontsumitzaileak baizik, Mexikon, adibidez, eros-ahalmen txikia baitago, eta antzeko zerbait gertatzen da beste kideen hirietako biztanle askoren artean.

Bestalde, Elkarte honen xedea beraien arteko merkataritza librea, poliki-poliki, bultzatzea da, eta horretarako muge-tako oztopo guztiak suntsituko dira epe ertain batean. Beraz, Europako Batasunaren parean jarriko da merkatuaren dimentsioari dagokionez.

NAFTAren sorrera Chiapaseko erreboltarekin lotzen da, erakunde hori sortu zen egun berean hasi baitziren herrialde horretako arazoak kaleratzen. Izan ere, Mexikok aukera guztiak dauzka galtzaile irteteko elkarte horretatik eta jadanik txiroa zena gehiago txirotzeko. Alde batetik, Iparraldeko bi kide erraldoien ondasunak arrapaladan sartuko dira Mexikoko merkatuetan eta, bien bitartean, honek ez dauka gehiegi eskaintzeko petrolio merkea eta beste zenbait lehengai ez badira. Bigarrenik, Mexikon inbertsioak egingo dituzte, baina EEBBetan edo Kanadan onartezinak direnak, kutsadura sortzen dutela-eta; honetan langile-sindikatuak paper garrantzitsua joko dezakete. Eta hirugarrenik, EEBBei hainbeste kostatzen zaien mexikar etorkinen arazoa gehiago kontrola dezake Washingtoneko gobernuak.

Oro har, ez dut uste oparotasun ekonomikoa garatuko denik hiru herrialdeetan zehar, eta Mexikarrek txirotasunetik ateratzeko nahiko lan izaten jarraituko dute. Bien bitartean, beste bi kideek errazago izango dute.

GATT ETA BERE AKORDIOAZ

1993. urtearen amaieran GAT Teko (Arantzel eta Merkataritza buruzko Akordio Orokorra) akordioak sinatu ziren, eta nazioarteko erakunde ekonomiko honen anaiek (FMI= Nazioarteko Moneta-Fondoa, eta BM=Munduko Bankua) beren biltzarrik burutu zituzten bederatzi hilabete beranduago. Hiru erakunde hauen erabakiak kide izategatik ordaintzen diren kuoten arabera hartzen dira. Eta jakina, hiruretan EEBBek jaritzen dute diru gehien eta ondorioz, beste hiruzpalau kideen laguntzarekin nahi dituzten proposamenak ateratzen dituzte aurrera.

GATTen helburua merkataritza askea ahalbideratzea da. Baina jakin, badakigu, lehengo mendetik gainera, merkataritza libreak herrialde aurreratuenak profitatzen dituela, eta kasu honetan EEBB, EB, Japonia eta antzeko herrialde garatuak dira abantailak erdietsiko dituztenak. Hirugarren munduko herrialdeetatik estatu garatuek lehengaiak arras merke inportatuko dituzte; aldiz, estatu garatu hauetatik ondasu-

nak masan eramango dituzte herrialde txiro haietara; eta herrialde hauen ekoizpen-aukera gehienak baztertuta geratuko dira, garapenaren abantailak gehiago kontzentratuko baitira lehen munduko herrialdeetan.

Hori gutxi baldin bada, FMI eta MB dauzkagu gorago esan dena errematatzeko. Lehenak, kanpo-merkataritza arekatua eta herrialde aberatsentzat abantailatsua izateko arauak ematen ditu, eta dirua utzi estatu txiro guztien ekonomiak herrialde garatuen zerbitzuan egon daitezzen; eta bigarreni, goitik datozen aginduak betetzen badituzte, dirua maileguan ematen zaie, beren ekonomiak doi eta egoki ditzaten.

Honi guztiari inperialismoa deitzen ziztaion duela zenbait urte. Orain inor ez da kezkatzen arazo larri honetaz; inperialismo hitza hiztegitik kendu ondoren, fenomeno ekonomiko hori desagertu bailitzan ari gara azterketa politiko-ekonomikoak egiten, baina herrialde txiroen sufrimenduek hor diraute.

EUROPAKO BATASUNAREN «ERRODILLOAZ»

EBren «errodilloa» berriro agertu zaigu eta bere eragina nabaritu da Euskal Herrian. Urtealdi honetan AHV/BLGren itxiera bideratu da. Euskal Herriko enpresa enblematikoa zena, Euskalduna zen bezala, ixtear dago. Beste urte bat iraungo du. Duela zenbait urte hamar mila langiletik gora enplegatzen zituen enpresa erraldoi honek, eta bere ordeztu eraikiko denak mila ez ditu behar. EBren politikak ahalbideratu du hori guztia: zaharra suntsitu eta berririk apenas ez sortu, Frantziako estatuak edo Alemaniak jadanik bideratuta baitzeukaten industria hori, edo honen hutsunea beteko zuena.

Egoera tamalgarri hau konpentsatzeko uste genuen Arriortua jaunak bere helburuak beteko zituela eta Zornotzan plan-ta erraldoi bat eraikiko zuela. Baina guztia hutsa izan da. Eskerrik Iruñean (Landaben) Arriortuaren enpresak aldeko apostua egin zuela, eta ondorioz, poztu beharrean gaude, bere eragin baikorra baitu Euskal Herriarentzat, nahiz Eusko Komunitate Autonomotik kanpo kokatua egon.

Arrantzan ere EBk agintzen digu. Baina EBn Frantziako estatuak agintzen duenez, nahi duena egiten jarraitzen du. EBko legea Espainiako estatuari betearazi, baina berak nahi duena egiten du. Antzeko zerbait gertatuko zaigu mahastiekin. EBk erabakiko du zenbat murriztu behar diren mahastiak, eta jakina, ahulena galtzaile; beraz, une gogorragoak periferian gaudenontzat.

Izan ere, Elkartean, *klub* batean bezala, kide izan nahi duenak aurretik ezarrita zeuden arauak onetsi behar ditu, eta arauak sortzaileek egiten dituzte. Gerora datozenek arau horiek bete behar dituzte. Beraz, abantailarekin jokatzeko dute sortzaileek. Eta jakina, EB klub bat da, eta arauak eta kide izateko epeak lehenengo sortzaileek ezarri zituzten, eta nahiko denbora izan zuten beren egitura ekonomikoak egokitzeko. Ea noiz sortzen den geure tamainako elkarteak!

XABIER ETXANIZ

INURRI LANGILEEN FRUITUAK. GERTAKARI HANDI ETA XUMEAK

Herri bateko kulturgintzaren eboluzioa aztertzean ekintza edo gertakari garrantzitsuak kontuan hartzen diren bezala, txiki eta xumeak ere presente izan behar ditugu. Nire ustez, Egunkariako irakurlea naizen aldetik, oso garrantzitsua eta itxaropentsua izan da Egunkariak Jaurlaritzarekin lortutako akordioa; orain arte Euskal Herriko eta nazioarteko albiste garrantzitsuen berri genuen bitartean, hemendik aurrera albiste horiek osatuz joango diren gehigarri eta kolaborazio bereziak lortuko dituela uste dugu.

Garrantzitsua izan da AEKrekin lortutako akordioa (HABEko euskaltegiak desegitearekin erlazonaturik egon daitekeen akordioa?), baina oraindik asko falta da helduen euskalduntze-alfabetatze lanetan ari den jendearen egoera normalizatzeko, lan-baldintzak, aseguruak, lokalak,... urrats handia eman da, baina bidaiak luzea izango da.

Donostian inaguraturiko «Koldo Mitxelena kulturgunea» ere, gertakari handi hauen artean koka daiteke. Beharrezkoa zen, eta aurreneko urte honetan zenbait erakusketa, argitarapen eta emanaldi interesgarri eskaini ditu.

Baina honelako ospakizun eta akordio garrantzitsuen ondoan izan dira beste batzuk ere; lan isila eta etengabearen ondorioa. Inurrien lana legez, hemen ere egon dira pertsona edo erakunde batzuk apurka-apurka lan jarriaren ondorioz emaitza interesgarriak eman dituztenak, edo Euskal Herriko kultur mugimenduan beste hondar-ale bat jarri dutenak.

«Koldo Mitxelena» dagoen hiri berean «Haur-liburuaren dokumentaziogunea» inaguratu da, Euskal Herrian dagoen bigarrena eta Donostiako Haur-Liburutegiaren osagarri dena. Orain arte batipat literatur lanak sortzeaz edo itzultzeaz kezkatu baldin bagara, iritsi da erreflexionatzeko, ikertzeko, debateak burutzeko medioak jartzeko ordua. 1993ko urte-buakeran haur-literaturari buruzko hiru ikerketa argitaratu ziren eta 1994ko urtarrilean beste bat. Mugimendu txiki baten hasiera da, haur eta gazte-literaturaren inguruan dagoen erreflexio eta ikerketarako nahiaren ondorioa. Azken hamabost urtetan kaleratutako liburu-kopuruari begiratu izan zaio, zenbat eta gehiago hobe, behar handia baitzegoen. Urtetik urtera liburu gehiago kaleratu dira eta datu horrek isladatzen omen zuen euskal liburugintzaren egoera. Orain, aldiz, iritsi da alde batetik kalitatean exigenteagoak izateko ordua (gutxiago kaleratu behar baldin bada, gutxiago kaleratuz), eta beste aldetik gure liburugintzari buruzko erreflexioa egiteko unea. Zer behar dugu, nora goaz, nolako lanak plazaratu behar dira, zer egin merkatu txiki honetan eta nola atera gizarte normalizatu batek behar dituen produktu txukun eta aberasgarriak? Hone-lako azterketak egiteko guztiz beharrezkoak dira J.M. Torrealda iñeren *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)* bezalako lanak, «Haur-liburuaren dokumentaziogunea» edo Gas-teizko «Sancho el Sabio» fundazioaren inurri-lana.

Baina izan dira komunikabideetako orriek erakutsi ez dituzten bestelako gertakariak ere; Mariasun Landaren *Julieta, Romeo y los ratones* liburua esaterako, inoiz euskal liburu ba-

tek erdaraz izan duen tiradarik handiena eduki duen argitalpena. Edo beren lanari esker kanporatzen hasi diren idazleen lanak (Patxi Zubizarre t a ren kasua esaterako). Gero eta gehiago dira kanporatzen ari diren euskal idazleak —haur eta gazte-literaturan behintzat—, Mariasun Landak aipaturiko liburuaz gain beste bat plazaratu du gazteleraz eta katalaneraz *Iholdi*, *Izeba txikia* eta *Alex* ipuinak bilduz, J. K. Igerabideren *Begi-niniaren poemak* e re gazteleraz argitaratuko omen da las-ter,... baina kasu guztietan egilea bera izan da bere lanaren berri eman duena, kanporatze-prozesuaz arduratu dena. Gure literaturgintzaren huts nabarmenetako bat arlo honetan dago oraindik ere; kanpoko lanak erosten erakutsi izan dugun tre-bezia bera izan beharko genuke gure produktuak saltzerakoan.

Beste lan isil horietako bat dugu «Irakasleak ikastetxetara» kanpainaren inguruan aritu diren antolatzaile, idazle eta ikastetxeak. Irakurketa bultzatzeko, literaturaren plazerra transmititzeko eginiko kanpaina. Aurten lehenengo aldiz iritsi da kanpaina hau Bizkaia eta Araba aldera, aurten inoiz baino idazle eta ikastetxe gehiago inplikatu dira. Honelako kanpaina bat gertakari garrantzitsua da euskal letretan, garrantzitsua ukitzen duen jende-kopuruagatik eta baita luzera begira izan ditzakeen ondorioengatik ere. Idazle bat ezagutzeak, entzuteak, el-karrizketatzeak, idazle horrenganako interesa pizteaz gain, bere liburuak —eta beste batzuenak— irakurtzera animatzen dute. Alde honetatik, liburutegietan (gero eta gehiago direnak, zorionez) egiten ari den lanaren osagarri litzateke.

ALDIZKARIETAKO INURRIAK

Baina inurri guztiak ez dira ezagunak, badira izengabeko inurri langile finak. Nire hirian, Gasteizen, hilerokaleratzen da «Geu Gasteiz» izeneko aldizkaria. 5.000 etxetan sartzen den aldizkaria euskara hutsean. Adibide bat besterik ez da, badira hamaika herri-aldizkari, bakoitza bere egora partikularra-ekin. Nik hobeto ezagutzen dudana Gasteizkoa da, eta egia esan mirari bat da hilerokaleratzen jasotzea. Baina mirari horrek badu bere atzean kazetari-talde langilea, maketatzaileak, pu-blizitate-arduraduna... jo ta ke lanean.

Egia da aldizkarigintza ez dela atzo bertakoa, urte batzuk di rela Arrasaten hasitako esperientzia harekin, baina gezurra ematen badu ere, gero eta herri gehiagotan gero eta ale gehiago ari dira kaleratzen; alegia, euskal irakurlegoa hazten ari dela (direla) etengabe. Gasteiz bezalako hiri batean guztiz interesgarria da «Geu Gasteiz»en esperientzia, interesgarria eta beharrezkoa, bai irakurketa-mailan edo informazio-mailan suposatzen duenagatik baita psikologikoki jakiteagatik hiri «erdaldun» honetako 5.000 etxetan jasotzen dela euskarazko aldizkaria.

Herri-aldizkariak betebeharrak garrantzitsua egiten ari dira: interes eta hizkera hurbiletik irakurleak erakartzea eta euskal irakurlegoa osatzen joatea. Urrats handiak eman dira; hasierako aleak eta gaur egungoak ikustea besterik ez dago. Hala ere, Euskal Herri hau normalizatua izateko asko falta da. «Argia», «Napartheid», «Elhuyar», «Larrun», «Hegats»,... inurri ugarien ondorioa ditugu, baina aldizkari hauetako gehienak ikusteziak dira, harpidetzaren bidez jasotzen dira eta ez dute presentziarik kalean. Horretaz gain, entretenitzeko aldizkariak falta dira, espezializatu gabeko gai sinpleak, elkarrizketak,... eskaintzen dituzten aldizkariak.

200 INURRIK IPURBELTZ

Ospakizunik gabeko gertakarien artean dugu «Ipurbeltz» aldizkariaren 200. alea. 1978an kaleratu zenetik hilero eskuratu ahal izan dute euskal neska-mutilek. Aldizkari honek irakurleak entretenitu eta hezitzeaz gain, gaur egungo ilustratzaile asko trebatu ditu. Bertako produkzioaren ondoan, kanpotik ekarritako lanak argitaratu izan dira eta komiki, denborapasa, jolas edo txisteen ondoan, haurren parte-hartzea bulatzatu.

Egun, lodiagoa dugu «Ipurbeltz», ilustratzaile asko pasatu dira bere orrialdeetatik, pertsonaia famatu bilakatu bertako zenbait, Punki, Triski, Bi luma,... Baina urteak pasatu ahala, komikiak hartu du aldizkariaren pisurik handiena, literatura, jolasak, kolaborazioak eta antzekoak alde batera utziz. Urte asko dira, aldizkari berriak ere sortu dira («Xirrixta» esaterako)

eta ondo daude «Ipurbeltz» edo «Kili-kili» bezalakoak, baina beharbada gaurkotu beharko lirateke, gaurko neska-mutikoei produktu osatuagoa, erakargarriagoa eskaini.

Egia da honelako aldizkari baten lana ikustean samurrago antzematen direla gure hutsuneak. Haurrentzako komikigintza hiru aldizkari hauetara mugatzen da, album edo libururik batere argitaratzen ez delarik. Denborapasa eta entretenigarri den argitalpen osagarririk ere ez dago. Eta alde honetatik eskerrezkoa da aldizkari hauen lan, isila, ospakizun handirik gabe, hileru-hileroproduktu duina kaleratuz; orain, osatu eta gaurkotzeko unea iritsi da.

GARZIARENA INURRIA

Izan dira bestelako argitalpen edo aldizkari xumeagoak. «Garziarena» bezala; uda aurretik kaleratzeari utzi zion aldizkari edo panfletoa. Euskal kultura bere osotasunean eta askatasun handienaz (askotan argitaratzaileek beraiek ere ez zekiten nor zen artikulua egilea) kritikatu eta komentatu ahal izan da. Hontaz eta hartaz, hemengoak eta hangoak, euskaraz nahiz erdaraz, espiritu kritikoa bultzatu nahi izan da, erreflexionatu gure herriaz, gure egoeraz, gure etorkizunaz. «Garziarena»z hitz egiterakoan gehiago aipatu da proiektuaren atzean zegoen jendea produktua bera baino, eta tamalgarria izan da eztabaidarako irekitako bidea ez jorratzea. Beharbada (gainerako) gure komunikabideen interes-ezak eragotzi du debatea edo isildu ditu aldizkarian esandako zenbait burutapen eta iritzi; Jaurlaritzaren politika kulturalaz, borroka armatuaz, euskararen egoeraz, argitalpengintzaz... ugari izan dira panfleto horretan ukitutako gaiak, baina ez dakigu zein arrazoirengatik ez diren beren marko txiki eta isil horretatik atera.

Baina «Garziarena» euskal-lagun talde baten proiektua izan da, martxan jarri eta egun batean «basta» esan arte mantendu duten proiektua. 1.000 irakurle inguru zuten eta kolaborazioak gero eta gehiago. Hala ere, herri honen ahuleziaren adibide garbia dugu. Proiektuak ia pertsonalak dira eta alde horretatik ez dago talde sendo bat hauen inguruan. Ez dakit zer

ondorio aterako zuten panfleto hau bultzatu zutenek, baina garbi dago debate eta eztabaidarako plataformen beharrea gaudela, eta hori zen «Garziarena»k eskaintzen zigun aukera bat.

INURRI LANGILEAK

Asko dira aipatu beharko liratekeen inurriak. Baina orokorrean nik uste, zenbait gertakari garrantzitsu izan badira ere, benetako aldaketak apurka-apurka ematen ari dira. Inurria bere bakardadean, auto-stop egiten, Otto Pette inurria edo inurrien tristura —teoria eta guzti—. Asko dira inurriak, eta ez bakarrik literarioak!, baina nik nahiko sakabanatuak ikusten ditut, bakoitza bere proiektuak egiten. Ez dut esaten kultur plangintza bat behar dugunik, baina bai egungo errealitateari buruzko erreflexioa eta azterketa. Non gauden, eta nora joan gaitezkeen; banakako lan horiei nola atera ahalik eta etekin handiena, alegia. Inurrien erregina nahi ez baldin badugu (ez-monarkiko asko baitago gure artean), gutxienez inurrien batzarra egin beharko genuke edo inurrien buruzagiek egoera aztertu. Ez da gutxi!

JOSE RAMON ETXEBARRIA

Guztiok ditugu geure puntu «ahulak» eta «deformazio profesionalak», gauzak geure ikuspuntu propio eta mugatutik ikustera eramaten gaituztenak. Aitor dut horietariko delatza niretzat gizarte zibilaren funtzionarizazioaz dudan iritzia, bizitzan zehar behin baino gehiagotan mamu-modura hartu dudana, eta horregatik sarri saiatu naiz, gure nortasun kultural eta intelektualean horrek ekar ditzakeen kalteak aztertzen eta horietaz pentsatzen. Hurrengo lerroetan pasa den urteko gorabehera kulturalak komentatzeko datorren diskurtsoaren koordinatuak alde aurretik ezagunak izan daitezen, ezer baino lehenago, militarizaziotik hurbil dakusadan bide horren aurreko —edo aurkako— intsumisioa aldarrikatzen dudala esanez hasiko naiz, eta bizitasun intelektuala eta disidentziarako eskubidea

itotzeko asmoz egina dela uste dudala esango dut. Eta pertsoneri diegan errespetua galdu nahi ez dudalarik, antzinako predikadoreen hitzak hartuz, «bekatua salatu nahi dudala eta ez bekataria» argi azpimarratuz hasiko naiz, nahiz eta ondo baino hobeto dakidan oreka batzuk ezinezkoak ez badira ere ia lor-tezinak direla. Ahaleginaren faltagatik ez da geratuko ordea.

1993-94 IKASTURTEA: FUNTZIONARIZAZIOAREN IKASTURTEA

1993ko maiatzaren bukaera-aldean hartu behar izan zuten ikastoletako partaideek —inola ere ez beren borondatez, horretara bortxatuta baizik— etorkizunari buruzko erabakia, «publiko» ala «pribatu» modura iraun nahi zuten alegia. Diktoria faltsuan barrena abiatzera behartu zituzten, gehienek herri-mugimenduaren fruitu zen ikastola-modura bizi nahi zutelarik. Horrela uste dut behintzat. Baina Buesa buru zela, Gasteizko gobernuaren bedeinkapenarekin, hiru probintzia baskongadoetako ikastoletako kideak erabaki mingarria hartzera behartuak izan ziren. Edozer eginda ere, edozer aukeratu, gaizki eginda zegoen; horixe izan zen benetako drama, guraso eta irakasle askok jasan behar izan zutena. Izan ere, esan dugun bezala, gehienen nahia —guztien nahia ez esatearren— ikastola izatearena baitzen, alegia, euskal eskola propio eta herritar modura segitzearena.

Pertsonen intenzionalitateari buruzko datu fidagarririk lortzea zail samarra denez —eta bereziki, gu gobernatzeko asmoa duten politikariena—, behin baino gehiagotan sintomaren bidezko teknika erabili behar izaten dugu egiara hurbiltzeko, horretarako, gobernariak deklarazioetan ezustean esandako gauzak, hots, *lapsus linguae* famatuak eta antzekoak analizatuz, sarri aitortezinak diren benetako asmoak zeintzuk diren ulertzeko. Buesa-k berak eman zigun pista maiatzeko erabakitze-egunarekin biharamunean: «Gaurtik aurrera ez da ikastolei buruz hitz egin behar, eskola publiko eta eskola pribatuei buruz baizik». Afirmazio honetan bere nahia adierazi zigun ezin garbikiago, nahiz eta horrek benetako errealitatearekin zerikusirik ez zeukan. Eta oker handirik egiteko arriskurik gabe, Buesaren helburua ikastola-mugimendua desagertaraztea zela esan dezakegu.

Izan ere, horixe izan baitzen Buesak eta beronen politika bultzatu zutenek zeukaten asmo behinena eta, nire ustez, bakarra. Euskal Herrian dena «normalizatzeko» duten joera horretan —esan nahi baita, Espainiarako normal edo espainiar arauen arabera normalizatua izango den egoerara pasarazteko— ikastolaren inguruan antolatzen ari den euskal irakaskuntza-sistema propioa zen, normalizazioaren aldarrikatzaileek zuten oztopo latzenetakoa. Kultura propioa sortzeko dugun eskubidea aldarrikatzen dugunok, ordea, guztiz alderantziz kontsideratu izan dugu prozesu osoa.

Baina, Galileo-k esan omen zuenez, «*E pur si muove!*» (Higitu egiten da, hala ere!), alegia, desioa eta errealitatea ez datoz bat. Eta «*Buesak hildakoek oso osasun ona daukatela*» esan dezakegu gaur egun, ikastola-modura segitzeko ausardia edota kemena izan dutenei jarritako mota guztietako txantaje ekonomikoak gorabehera. Gainera, orain arte herri-mugimendu honi laguntza anonimoa eman dioten herritarrek ere adierazpen bera egin nahi izan dutelakoan nago, maiatzetik hona egin diren ikastoletako festa guztietan izan den partaidetza ikaragarria kontuan harturik.

Dena den, kontraste itzela dago, herritarrengandik ekintza propio ez-ofizialek duten laguntza eta bultzada horiek, kulturaren eta irakaskuntzaren «profesionalek» duten jarrera rekin konparatzean. Izan ere, «militantzia» kontzeptua gainditu beharra dagoela aipatzen den giroetan, mota horretako lanak «profesionaldu» beharraz mintzo baitira asko eta asko, inplizituki, arlo horietako «langileen» segurantzia —ekonomikoa, noski— portaera politikoaren *leitmotiv* eta atxakia bihurtzen den neurri berean.

Horrela, irakaskuntza propioaren aldarrikapena egin duen herri-mugimenduaren historiaren punturik garrantzizkoena sistema berria sortzearen aldeko apustua izan den bitartean, arlo horietako «teknikari» batzuen joera —ikastolen kasuan irakasle eta bestelako langile batzuen— segurtasunarena izan da, horretarako funtzionarizazioaren bidea harturik.

Alferrik izan dira, sindikatuen barnean eginiko kritikak, erabakien garrantzi politikoa azpimarratuz. Ikastoletan maioritarioak diren sindikatuek, behin baino gehiagotan jokatu

izan dute sindikatu sozio-politiko modura, alegia, interes ekonomiko hutsak gainditurik geure herriaren beneraikuntzan parte hartuz. Ez da izan ordea oraingo kasua, arazo ekonomikoek eta segurtasun laborekoek lehentasun osoa izan baitute, irakaskuntza-sistema propioaren eraikuntza alde batera utzirik. Diodanaren frogarik argienaren gisa, 93-94 ikasturtearen barnean eskola «publiko» izatera pasatu diren ikastolako irakasle guztien funtzionarizazioaren alde izan duten jarrera aipa daiteke, bestelako eredu antolatu nahi zutenak —funtzionario izan nahi ez zutenek legalki ere horretarako eskubide osoa zutelarik, gainera— beren bide horretan bakarrik utzi dituztelarik, defentsarik gabe, eta inolako gidaritza politikorik gabe. Azken batez, lehendik inposaturik zetorren sistema funtzionarialari men egin zitzaion, eta, ene ustez, horrek kalte handiak ekarriko ditu ikastolen proiektu originala burutzeko, bide horretatik abiatu diren taldeetan ia-ezinezkoa bihurtuz.

Zeren eta, askotan esana den arren, jendea ez baita konturatzeko, zer kalte dakarren gizarte osoaren funtzionarizazioak. Konparazio baterako, funtzionarizazioak burokratizatorako bidea dakarkit burura, Eki Europako esperientzia ezin argigarriagoa begien bistan dugularik. Lehenago ere esan dut eta ez naiz nekatuko hori errepikatzen, nahiz eta jakin dakidan nire lagun askori gustatzen ez zaiela: *Funtzionarizazioa estatuaren egituraren integratzeko bidea baino ez da*. Bertako partaide bihurtzen da funtzionarioa, estatuaren partaide, formalki ere bertako legearen defenditzaile dela adierazteko zin egin behar duelarik, horren barnean, Espainiako Konstituzioaren defentsan arituko dela espreski zin eginez. Eta jakin behar dugu, gure proiektu euskaldun propioa eta espainiar estatuarena antagonikoak direla.

KULTURAREN ETA IRAKASKUNTZAREN FUNTZIONARIZAZIOAREN KALTEAK: BUROKRATIZAZIOA

Pisu handia ematen zaie kultur ekitaldi «ofizialei», kasurako, Donostiako zinemaldia dela, Guggenheim museoaren proiektua dela, «Koldo Mitxelena Kulturunea» dela eta abar, itzelezko dirutzak erabiliz. Udaletako bulegoak kultur teknikariz be-

te nahi dira sarri, kulturaren munduan benetan haize-bolada freskoa dakarkiguten gazteen ekintzei trabak jartzen zaizkion aldi berean, pertsegituak ez direnean; ikus bestela gaztetxeak, herritarrek autonomoki kudeaturiko kultur etxeak, herrietako ekitaldiak, ... Nire ikuspuntutik, ordea, kultur dinamismoaren abiapuntu dira gehienetan, inkontrolatuak diren ekitaldi horiek.

Konturatu gabe, burokratizazio kulturalaren bidetik abiatzen ari ote garen pentsatzen nago. Marketing kulturalaren autopistatik abiarazi nahi gaituzte diru publikoaren iturriak kontrolatzen dituztenek, mendi maldatsuen bidezidorretatik abiatu beharrean. Hego Euskal Herriko komunitate autonomoak funtzionarioen erresuma izan daitezten bidean ez ote goazen, herritarrek etengabe sortutako ideien aldeko apustuan dirua sartu ordez, dagitena dagitela bizitza osorako soldata bermaturik izango duten funtzionarioen soldatetan eta itxura besterik ez diren lan erraldoietan sartzen dute, lehenago ere dirua eurrez dutenei are gehiago emanez.

Ez dira inola ere diruz laguntzen gazteen inizatibaz sorturiko ekitaldi partizipatiboak, atzetik indar polizialak bidaltzen ez direnean. Gazteteen ahalegina benetan azpimarratzekoa da, zenbait erakundek eginiko bestelako mugidak diren bezalaxe, Jarrai gazte-taldeak 1994ko Aste Santuan antolaturiko kanpaldia kasu, edota AEK erakundeak antolaturikoak. Horrelakoei ez zaie inolako balio kulturalik aitortzen, etorkizunari begira duten balio hezitzailea ahantziz, portatzeko eta izateko modu berrien habia diren arren. Ekitaldi horiek guztiak funtzionarizazioaren eta burokratizazioaren aurkako antidotorik onena direlakoan nago, ene ustez, izateko modu horretatik sortu den fenomeno sozial eta kulturalaren oinarrian egonik. Fenomeno hori azken hamarkada honetako garrantzizkoena dela deritzot, eta intsumisioarena da.

INTSUMISIOA, BALIO NEURTEZINEKO EMAITZA KULTURALA

Intsumisioa estatuaren egituran onartua izateko erritoaren aurkako altxamendu herritarra da, hasieran derrigorrezko soldadutzaren aurka konkretatu dena. Abiapuntu antimilitarista izan du eta dauka, zer esanik ez, baina hori baino askoz

gehiago delakoan nago. Eten egin behar zen logika horrekin eta intsumisoek eten egin dute, aro berri baterantz abiaturik.

Nolanahi dela, ene iritziz, intsumisioaren muina estatuaren logikarekin etetea datza, eta zabaldu beharrekoa, beraz, estatua ren inposizioetara, estatuaren egituretan integratzera behartzen gaituzten kasu guztietara. Bide eta kasu bakarra ez dela jakinda, unibertsitateko irakasle batzuk ere intsumiso bihurtu zirela —ginela— esan behar da. Izan ere, irakaslego propioaren sorrerarako bidean, gutariko batzuk soldadutzaren aurkako intsumisoek segituriko bide beretsutik abiatu baikinen. Hain zuzen, ikusiz ezen oraingo sisteman integratzeko asmoz funtzionario bihurtu nahi gintuztela, geure kontzientzi objektzioa agertu genuen lehenik, eta, bide horretatik irteerarik ez zegoela ikusi ondoren, geure buruak intsumisotzat jo baikenituen funtzionaritzaren aurka.

Oraingo ikuspuntutik, gero eta argiago dugu funtzionari-tza ren aurkako txertorik seguruena, intsumiso bihurtzearena dela, dugun esperientziarekin uste baitugu, horrela baino ezin daitekeela inposizioa gaindi eta sistema berrirako biderik ireki.

Kulturan horrelako zerbaiten premia dugulakoan nago, eta horixe da prezeski, 93-94 ikasturte kulturalaren azterketa honen ondorio modura plazaratu nahi nukeena. Hots, intsumisioaren kultura da, herri honek sor dezakeen —sortzen ari den— emaitza kulturalik handienetakoa.

TXOMIN HEGUY

IRISARRI-KO ONDAREAREN EGUNAK

Duela bi urte izan zen lehen Ondarearen Eguna Irisarrin. Euskal Kultur Erakundearen antolakuntzapean. Eta, eguraldi txarra izanagatik, arrakasta izugarria lortu zuen.

Ondorioz, beroan bero, erabaki bat hartua izan zen: bi urteren buruan, Irisarrin berriro biltzea.

Hori gertatu da 1994ko urriaren 15 eta 16an. Oihartzun ugari ukan du gertakari horrek Euskal Herriko komunikabi-deetan. Hain zuzen, Frantses Estatuko bi ministroen bisitak, iparraldeko eta hegoaldeko kargudun politiko askoren erdian bazterrak mintzarazi ditu. Nolabait itzalean utziz garrantzi-tsuena: bi egun horietan plazaratua izan den lana! Irisarriko politikiridegi berrian, euskal ondare kultural zein naturalaz arduratzen diren berrogeita hamar bat elkarte eta erakunde bildu dira, bakoitzak agertzen zuela molde argi eta egokienean, hain kopuru handian etorri den publikoari, bere ekintzen berri. Iparraldekoak ziren batasun gehienak baina hegoaldeetik ere batzuk etorri dira, hala nola UZEI, Elhuyar, Aranzadi, Lur... eta beste. Bederatzi sailetan banatua zen biltzarrea: hizkuntza (euskara noski), arkitektura, arkeologia, historia eta etnografia, ondare naturala, hezkuntza eta ondarea, argitalpengintza, erakustokigintza eta arteak. Hor nabaritu da, iparraldeko eta hegoaldeko pertsona zaletu eta adituek egiten duten lan ikaragarria. Jende horiek, publiko zabalenari beren obren edo ikerketa-lanen aurkezteaz gain, elkar gurutzatu eta mintzatu dira. Hanbat hobe, hori baita hain zuzen ondarearen egun horien helburu nagusienetako bat.

Biltzarrehoari bazen Irisarriko egun horien ardatza, gertakari horren barruan izan diren hitzorduek merezi dute balorapen berezi bat.

Lehenik, etxegintza eta arkitekturaz, hiru ordu t'erdia iraun duen mintzaldi-eztabaida mamitsua aipatu behar genuke, hiru-rehun bat jendek —zati bat bederen— segitu baitute!

Gonbidatuak ziren bederatzi pertsona adituek beren iritzia ekarri dute, bakoitzak galdera berezi bati ihardetsiz. Ondorioz, eztabaida motza izan arren, funtsezko kezka batzuk plazaratuak izan dira; zer izanen da biharko euskal etxea? Orain bezala, gehienetan ikusten den bezala, baserri munduko ohi-durazko etxearen kopia bat? Itxura berri bat ukan lezaketen bizitegi batzuk asma genitzake epe laburrera? Asmatzea gauza bat da, baina eraikuntza horiek onartuak ote lirateke? Eta hirigintzari lotuak diren arazoak? Erran gabe doa, erantzun eta iritzi desberdinak azaldu direla. Hori zen lehen gogoetaldi ho-

rren funtsa. Eztabaida irekitzea eta ahal bezainbat jende (ez ba-
karrik profesionalak) inplikatzeko. Horretan ere, finkatua izan
zen helburu nagusia lortua izan da. (Mintzaldi-eztabaida ho-
rren ondorioak beranduago argitaratuak izanen dira).

Azkenean, nola ez aipa Lauburu elkarteak hogeitaz hila-
rri borobiletaz egin duen bilketa, ikerketa eta zainketa lan pa-
regabea! Elkarte horrek merezi izan du Irisarriko ondarearen
egun horietan eskainia izan zaion ikustate berezia. Iparralde-
ko hilerrietan, gisa horretako hiru mila monumentu ikertu,
neurtu, argazkitan hartu, margotu, klasifikatu eta oroz gaine-
tik salbatu dituzte! Lan ikaragarri horri esker, gure funtsezko
kulturaren adierazpen hori, gaur hobekiago ezagutzen dugu. Eta
honek, bertze ondorio bat ekarri du. Garrantzitsuena. Sail ho-
netan ere, gaurkotatzen, kreazioarenateak ireki ditu: ha-
rri borobil berriak asmatzen, zizelkatzen dira berriro, hilerri
naturalak berriro eraikitzen ari dira herri batzuetan...

Hots, hori erakutsi digute aurtengo Irisarriko egun dirdiratsu
horiek: ondarea hobekiago ikertu, ezagutu, zaindu behar du-
gula, gure jakitatea egunero hazi behar dugula, baina helbu-
ru nagusi bati lotuz: oraina eta geroaren zerbitzatzea.

EUSKAL ERAKUSTOKIAREN ETORKIZUNA

Sei urte Baionan finkatua den Euskal Erakustokia publikoari
hertsia dela (egoitza guziaz berritu behar da)! Berrikitan, Fran-
tziako lehen ministroa den Balladur Jaunak berri on bat kon-
firmatu du Baionako udaletxean egin duen bisitaldiaren ka-
rietara: bere berrantolakuntzarako, frantses kultur ministeri-
tzak 22 milioi frankotako diru-laguntza ekarriko diola Baionako
euskal erakustokiari. Informazio baikorra dudarik gabe nahiz
ez duen inbertsio guziaren zati bat baizik estaltzen. (Orotara 100
milioi frankotako diru-kopurua aipatzen da). Baina, funtsezko
galdera hau da: zer bilakatu behar du gure kultur herri-
koia renezagupenerako hain baliotsua izan den eta izan behar
lukeen tresna horrek?

Duela urte t'erdi, Euskal Kultur Erakundearen barruan zu-
tik ezarria izan den Euskal Ondarearen Batzorde Iraunkorrak

gogoetaldi garrantzitsu bat burutu du gai horretaz. Ondorioz, Euskal Kultur Erakundeak, Irisarriko Ondarearen Egunen egitarauarekin batera, oinarriko testu bat plazaratu du iparraldeko museogintzaren geroari buruz.

Baionako Euskal Erakustokiaren garrantzitasun premia-tsua azaltzen du idazki horrek, hiru puntu nagusi azpimarratuz. Euskal Erakustokiak izan behar du:

1) *Euskal Ondarearen argi-dorrea*: toki, eskualde eta nazioarte mailan, hedapenerako xedea daukan egoitza zientifiko bat; beirakuntzarako tresna egoki bat; ikerkuntzaren zerbitzuko egitura bat; dokumentazio-zentro bat; hedapen eta hezkuntzaren sostengatzaile bat; Ipar eta Hego Euskal Herriko ekonomi eta kultur erakundeen partaide bat.

2) *Ipar Euskal Herriko museogintzaren zubi-burua*: Gaur egun Ipar Euskal Herrian, han-hemenka museo txiki batzuen irekitzeko egitasmoak badaude. Erran gabe doa, proiektu horiek, Euskal Erakustoki berritu bati lotu behar direla. Euskal Erakustokiak bide-gurutze bat izan behar du. Bidegurutze horretarik abia eta zabaldu behar da, Ipar Euskal Herri osoan, museo txikiagoz eginikako sare egoki bat.

3) *Bildumen zurkaitz zientifikoa*: Helburu nagusi horietara heltzeko, dudarik ez da gaur egungo Euskal Erakustokiaren estatutua berrikusi behar dela. Hain zuzen, Euskal Erakustoki hori, Baionako hiriarena da. Hirurogei urtez, gauzak asko aldatu dira: beharrak, nahikeriak, erakustokien kontzepzioak, teknikak, etab... Ipar Euskal Herriak behar du XXI. mendean sartzeko asmatua den euskal erakustoki moderno bat. Inoiz ahantzi gabe, erakustokigintzaren antolaketa hori, ondareari buruzko politika orokor batean finkatu behar dela, herri honetako jendeek izan behar dutelarik politika horren aktore nagusi.

AIHERRAN GAUBEILA

Askotan edo soilik egiten da ikusgarri edo kultur ekintza opa-roen aipamena, kritika eta balorapena. Bazterrera utziz inportantzia eta nolakotasun handia daukaten gertakari asko.

1994ko azaroaren 10ean, Aiherran iragan dena horietakoa izan da. Nostalgi izpirik gabe, urtean behin bederen, gure haurtzaroko supazter-xokoaren giro hura berriro asmatzen ari dira Baxe-Nafarroko herri zoragarri horretan. Kantari, bertsolari, soinulari, kondalari, antzerkilari* batzuen inguruan, 200 bat jende —herritarrak gehienak, Aiherran berean 500 bat biztanle direlarik!— elkarretaratu da. Haurrak, gazteak (asko!), adinekoak.

Zinez momentu ederrak eta hunkigarriak izan dira arrats horretan: Niko Etxart-ek (Euskal Herriko rockeroen aitona!) bere aitarekin Zuberoko ohidurazko abesti batzuk kantatu dizkigularik, Aiherrako zazpi gaztek, hiru antzerki labur eskaini, etab...

Azken adibide hau adierazgarria da. Holako gertakizunen helburua izan behar baita ere lekuko jendearen eta talentu berrien taula gainean agertaraztea, artista konfirmatuen alboan.

Urepeleko bertso-saiotik landa, Andoni Egañak Egunkarian deklaratu zuen: «Lortu behar dugu jendeak hizkuntzarekin gozatzen ikastea». Aiherran, lau orduz, euskara baizik ez da entzun solas, abesti, olerki, bertso edo antzerkietan. Jendeak entzun, ikusi eta ikasi du. Eta ez da asperturik atera Aiherrako Denen Etxean gelatik.

**Hor ziren:*

Niko Etxart bere aitarekin, Jojo eta Ramuntxo, Aire ahizpak, Txomin Héguy eta Marie-Hélène Estecahandy kantuz; Ezponda eta Mixel Xalbador bertsoetan; Ugutz kondalaritzan eta Aiherrako 7 antzerkilari gazte, Bordaxuri taldeko Frantxoa Cousteau laguntzaile.

LAURA MINTEGI

Jakin-en eskaerari erantzunez, 93-94 ikasturtearen Kultur Balantze modukoa egiteari ekingo diot, horretarako lauzpabost gai aukeratuz. Egia esan behar badut, *Jakin*-ek laguntza gisa bidalitako balizko gai-zerrenda behatuz (aipatu urtean izandako kultur gertaerak osatuta), azpimarratzekorik baino, gabeziaz ohartu naiz. Eta azalduko dut segidan horrekin zer esan nahi dudana.

KULTURA NAZIONALERAKO PLANGINTZARIK EZA

Iazko urtean egin dena baino, egin ez dena agertzen zaigu nabarien, kulturaren eremuan. Eta egin ez diren gauzen artean, Kultura Nazionalerako Plangintza Orokorra dugu, hain zuzen. Instituzioei legokieke, printzipioz, honelako plangintza burutzea, beraiek baitituzte, teoriarik, berau gauzatzeko baliabide tekniko eta ekonomikoak, prestakuntza, pertsonala eta, batez ere, erantzukizun politikoa. Bete beharreko lehen baldintza, hain zuzen, asmo nazionala litzateke, eta horixe dugu, hain zuzen, instituzioek inondik inora agertzen ez duten ezaugarria. Nolatan pentsatu, bada, klabe nazionalistan zentralismoaren inposaketei makurtzeko era baino ez baldin badute pentsamenduan? Mutiko onarenak egiten ahalegintzeak honelakoak dakartza, parean dugunaren politika norberak egitea azkenean. Eta ez dago gauza tristeagorik nazionalista izena daramatenak politika espainola egiten ikustea baino, eta bakar-bakarrik une zehatzetan (Sailburuan Alderdi Egunean, hauteskunde-kanpainan, edo batzoki berria irekitzean) gogoratzea herri batetik sortuak direla eta herri horren aurrean azaldu behar dituztela egingdakoak.

Plangintza Orokorra burutu ezean, instituzioek, bigarren aukera, herri-mugimenduei egiten uztea lukete, *laisser faire* alegia. Baina ez. «Nik egin ez, baina beste inork ere ez du egingo» pentsatzen omen dute, eta bi ditugu diogunaren adibide nabari-nabariak: HABE batetik, eta balizko euskarazko egunkaria, besteik. Beloki jaunak zuzenduriko egitasmo hark huts egin zuen, denbora luzez diru publikoaren kopuru ederra erre ondoren, hain zuzen ere gaur egun *Euskaldunon Egunkaria*-ri ukatu egiten zaion dirua (publizitatetik bidezko sosak ere ematen ez zaizkiolarik). Egin ez, baina kontrolatzen ez dutenek egin dezatela ere ez. Jaurlaritzaren asmoa, azken finean, ez zen euskarazko eguneroko prentsa bultzatzea, baizik eta beste komunikabide bat gehiago kontrolatzea, eta euskarazko prentsa BOE bihurtzea. Denborak eta Egunkaria-rekiko politikak begi-bistan utzi du alde aurretik askotxok somatzen genuena.

Euskalduntze-prozesuari dagokiola, gauza bera edo antzekoa esan daiteke. Urtetan lanean ziharduen AEKri muzin egi-

nez, HABE erakunde berria sortu zuen Jaurlaritzak, AEKren esperientzia, irakaslegoa, metodologia eta materiala bereganatuz. Ahalegina, ordea, hutsala izan zen, AEKk demari eutsi egin diolako HABE hiltorian dagoen artean.

1993-94 ikasturtean Jaurlaritzak *Euskaldunon Egunkaria* eta AEKrekin sinatu dituen akordioei buruz, berriz, zer esan, nahikoak ez direla, jakina, baina horrez gain ez diotela urtetako arazoari irtenbiderik ematen. Makilaje hutsa, irudia baino ez, norbaitzuen kontzientziarako estalgarri, gehienaz ere.

BALORE BERRIEKIKO SENTSIBILITATE-FALTA

Gabeziekin segituz, aurten ere faltan hartu izan den beste faktorea, balore berriekiko sentsibilitate-eza izan da, eta balore esaten dugunean, ez dugu bakarrik egilea esan nahi, baizik eta estilo, korronte, joera, orientazio, etab.

Argi ez dagoena zera da, deskubritzaile eta kritikari funtzioa bete behar luketenak (eta hemen ere gabezia nabari dugu, kritikariena) berriarekiko adimen gutxi ote duten, edo, baliteke izan, gauza berririk ez agertzea, kreatorien aldetik sormen-lehortea somatzen delako. Bata zein bestea izan, kontua da igazko ikasturtean ez dela euskal kultura astindu duenik izan, aurpegi berririk ez ezik, ideia berririk ere somatu ez delako.

Zergatiak ez badakizkigu ere, egin ditzagun bi konstatazio: gero eta eskasagoa dela kazetari espezializatuen prestakuntza, bata, eta sortzaileek arriskurako adierazten duten beldurra, bestea. Paper zuriaren aurreko beldurrari, orain, nolabait, oihartzunik ez edukitzeagatik bertigoa gehitu zaio, eta bien batuketak zera ematen du, urratu gabeko bideetatik ez abiatzea, ulertua izango ez delako izuaz.

EHU: ZER FALTA, HARTAZ HARROTU

Euskal Herriko Unibertsitatean diren gabeziez mintzatzen hasiz gero, amaigabeko zerrenda burutuko genuke, eta azkenean ezkorregia izango litzateke balantzea, tristeegia instituzio

hau inoiz maite izan dugunontzat. Aipa ditzagun, beraz, 1993-94an izandako hiru aspektu bakarrik, egoera oikorreakikiko esanguratsuak direnak, nire ustez.

Lehenengo eta behin, bi diplomatura berriren sorrera dugu azpimarratzekoa. Irailean «Hizkuntz Plangintzarako Graduondoko Diplomatura» sortu zen, eta urtarrilean «Antzerkigintza Diplomatura». Zer falta eta hartaz harrotu egiten da Unibertsitatea. Bere buruari hizkuntz plangintza ezartzeko gai ez bada, nola da posible horri buruz inori ere ikasgaiak ematea? Nola auzartzen da horretaz mintzatzen? Noizko beteko ditu etxe barruko beharrak, premia larriak? Lauzprobost urte dira irakasle-talde txiki batek EHUra Euskara-Plangintza diseinatu zuena, bost urtetarako egina eta plan orokorrako baten hasiera baino ez zena. Aipatu Plangintza ontzat eman zuen Euskara-Batzordeak, ontzat Goirienaren kandidaturak eta ontzat eman ere egun euskararako errektoreordea denak. Plangintza egokia guztien ustetan, eta EHUko atal guztiak planifikatzeaz gain (AZP, ikasle-goa, irakasle-goa eta ikerkuntza), gainera merkea zena, urtean 100 bat milioi baino ez baitzuen behar, bost urtetarako lehen fase horretan. 100 milioi, berriz diogu. Plangintza idatzi zenean EHUren aurrekontua 16.000 milioikoa zen. Aurtengo aurrekontua 28.000 milioikoa izan da. Plangintza, hala ere, ez da bete, diru-faltaz, omen. Guztien ustetan horren ona zen plangintza paper erre da.

Bigarren diplomatura antzerkigintzari buruzkoa da, Jaurilaritzaren laguntzaz sortua. Negarrez hasteko modukoa da ikustea, orain, nola jartzen den martxan antzerkigintza ikasteko titulazio berria, eta aldi berean, nola ito izan diren, sistematikoki eta kupidagabeki, martxa onean ziharduten antzerki-talde guztiak, Jaurilaritzak diseinaturiko politikaren ondorioz. Berriz ere, eta kulturaren arloan beste mila aspektutan egiten ari den bezalaxe (ikus bedi Guggenheim), Jaurilaritzak kopurua sakrifikatu egiten du balizko kalitate baten mesedetan. Eta erraturik dago. Bakar batzuk bultzatzea, gehiengoa baztertuz, ez da kalitaterako berma. Eta, larriagoa dena, ez da kultura nazionala eraiki nahi duen gobernu baten politika zuzena.

EHUra bueltatuz, beste bi aspektu azpimarratu nahi dugu, bertoko agintarien ahoan txitean-pitean agertzen direnak, eta berorien gabezia baino adierazten ez dutenak: normaltasuna bata, eta duintasuna bestea.

Normaltasuna omen da azken lau urteotan astero gutxienez (eta baditut frogak), komunikabideetan agertzea, eta ez ikerkuntza-orrietan baizik eta gertakizunekoetan. Normaltasuna omen da egun ehun epaiketarik gora zabalik edukitzea Euskal Herriko epaitegietan. Normaltasuna omen da bere langilego gehiena oraindik orain behin-behineko kontratazioaz loturik edukitzea. Normaltasuna omen da oraindik argi ez edukitzea unibertsitate bakarra ala hiru izan nahi duen, campus-ka banatua ala titulazioka, hizkuntza bakarrekoa ala bi hizkuntzetakoa. Normaltasuna, omen.

Arazoak konpontzeko lehen baldintza zera da, arazoak dau dela onartzea. Nekez konponduko ditu EHUk bere problema ugariak, problemarik duenik behin eta berriz ukatu egiten bado, publikoan zein pribatuan.

Azken gabezia duintasunarena da. Hitz bat baino ez kontu honetaz. 1993-94 ikasturte oso-osoan sei irakasle Leioako campus-etik desterratuak izan dira, indarrez, lan-kontratua eta irakaslego propioa eskatzeagatik. Datuok berauok badira izan nahiko esanguratsuak nik bestelako kalifikaziorik eman diezaiedan. Bestalde, EHUk gertatzen ari den zenbait gertaera ulertu ez ezik, mingarriegiak dira horietaz lasaitasunez mintza nadin. Amorrua, tristura, malenkonia, inpotentzia, esperantza...

INTELEKTUALGOAREN AUSENTZIA

Aurreko puntuetan gabeziaz mintzatzen banintzen, oraingoan are eta nabariagoa da eskasia intelektualei dagokiela. Lehenengo eta behin, halako funtzioa beteko lukeen pertsona gutxi egon dagoelako, eta, bigarrenez, leudekeen apur horiek intelektual baten benetako zereginei heltzen ez diotelako.

Nire ustez, intelektualari eskatu behar zaiona zera da, errealitatetik hurbil egonik, unean uneko gertaerak aztertzen eta ba-

loratzen jakin dezala, beren lekuan kokatuz eta egoera orokorrean txertatuz. Izpiritu kritikoa eta positiboa adierazi behar luke, inkonformista botere a rekiko, ulerkor ahulenarekiko, konprometiturik norbere ideiekin beti ere. Intelektualari gertaera sozialekiko sentsibilitatea eskatu behar zaio, eta gorabehera politikoekiko ezagutza ahalik eta zabalena.

Guzti honen ordean, halako papera bete behar luketenak akzio-erreakzio dinamika txiroan sarturik daude, erasoan aurrean bakarrik ahotsa altxatuz, orientabiderik eskaini gabe, zenbait arazotan sentsibilitate-falta ikaragarriena adieraziz. Edo are txarragoa. Gure artean ere badaude egon nik deituriko «Ramoncín sindromea» dutenak, hau da, edozein debate zein tertuliaren kide, honetaz eta hartaz mintzatzeko prest, ezagutzen ez dutenaz ere iritzi erabatekoa emateko gai, nahiz eta inork gutxik jakin zer-nolako merezimenduak egin dituzten. Edozein telesaioren aurkezle gisa agertzen denean, nork gogoratzen du, honez gero, Ramoncín-ek «El rey del pollo frito» izateagatik eman duela bere burua ezagutzera eta rock kantari-protesta-marjinala izan zela garai batean? Zenbait Ramoncín badago ere gure irrati-telebistan. Baina ugaritzeak ez ditu intelektualago egingo, jakina.

1993-94 urtea, oro har, euskal intelektualgoarentzat urte beltz bezala jo genezake. Debate-eza, azterketa-eza, salaketak-eza, sakontasun-eza nabaritu izan dira kulturaren arloan jatzotako arazo handietan: Guggenheim-en inposaketa (debate apurra sortarazi izan duen bakarra), ikastolen integrazioa sare publikoan (alderdikieriaz beteriko eztabaida), entziklopedien eraso/arazoa, Egin-en miaketa, Orkestaren politika arrotza, Seaskaren egoera berria, Euskararen Legea Nafarroan eta Toubon Legea Iparraldean, Pepe Rey-ren gartzelaratzeta, eta, batez ere, EHU ematen ari den ikuskizun penagarria... non izan dira intelektualak?

Azkenik, eta amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet *Jakin*-eko lagunei, «emakumea eta...» ez den gaiari buruz mintzatzeko aukera eman digutelako zenbait emakumeri, nahiz eta, aukuratutako 32 egiletatik, emakume garenok 2 baino ez garen.

ANDRES URRUTIA

Biharco batean izango direan ausazco gai batzuren gaineco Eracusaldia

Jaun esribau batec idatzia eta modu erraz batean argitaratuac *Jakin* aldizkari bihilabetekarian, J. B. Agirre zenac orain dela ehun urte egin zuen guisan.

LEHEN ERACUSALDIA

Sinistua izan dedilla legegillea eta haren aginduac beteac ere.

Atera zen. Beltz samarra Nafarroan. Beste horrenbeste Iparaldean. Ohargarri da, euskaldun hiritar hori, nola aldatu diren Euskal Autonomi Elkartearen inguruko lurralde euskaldunen hizkuntz arauak. Batera joatea baino, badirudi, euskaldun maitea, apartera garamatzatela lege-abiabide hauek.

Frantzian hasi zen kontua. Tximista eta txinpartek ekarri zuten hasiera. Konstituzio frantsesa. Atxakia Europan sartzea genuen. Esanbidea, «zuzena»: *«la langue de la République est le français»*.

Behin eta berriro esan izan zaigu helburua ez dela euskal hizkuntza, ez bada kanpo-mintzairak eta beren-beregi ingeles berbeta hori, horiek baitira frantsesarentzako benetako perrik eta arriskuak.

Frantsesa, estatu-afera dugula gogoratu digu berrikitan Toulon ministro frantsesak.

Aurretik zetorren porrota —1975. urteko legearena, hain zuzen ere—. Inguruko eta bazterretako esamesak, edu askotakoak. Azkenean, oso gutxi batzuk bete eta gainerakoek arbuiatu, Frantses Kontseilu Konstituzionalak barne.

Bestelako bideak jarraitu dituzte Nafarroako erresuman. Kritikoak alde batera utzita, bertako hizkuntz arauaren ajeak nabari zaizkio edonori.

Azkenean, deus ez. Beste behin ere, betikoak eta betiko arrazoiak, betiko ondorioak iristeko. Urليا, Sandia eta Berendiak badute jorrazteko gairik.

Euskara, ostera ere, hurrengo baterako gelditzen da.

Biharko baterako, agian.

BIGARREN ERACUSALDIA

Ez da ibilli bear leneco gauzac irabiatzen

Bai, ordea, gogoratzen. Hizkuntza eta legea, legea eta hizkuntza. Berriro ere, gaiak asaldatu gaitu. Euskaltzaindia genuen antolatzailea. Autua euskararen erabilera zuzenaren inguruan zebilkigun.

Eztabaidagai, «*Euskara zuzenari*» buruzko Jardunaldi horien ondorioak. Hitzak hitz, «*zigorbide*» delakoak sortu zuen iskanbila.

Hori idatzi zutenen gogoan euskararen erabilera zuzena genuen xede. Baten batek bere eredu propioaren kontrakotzat hartu zuen idatzitakoa. Beste batek, ezin izan zuen bere itxurazko burujakintasuna —eta keria—izkutatu frantsesaren egoera gogorarazteko: mintzaira dekretuz ez omen da arautzen, idazten zuen bere egiaz osotoro konbentziturik, euskararen eta frantsesaren arteko amildegiak nolakoak diren ohartzeko.

Azken finean, nahasmendua eta gatazka. Besterik ez. Batzuek eta besteek, antza denez, ez genuen gauzak behar bezala adierazten jakin.

Biharko batean, agian, erabilera zuzenago hori moldatzeko gauza izango gara.

HIRUGARREN ERACUSALDIA

Badira beste batzuec araurreneco becatuaz osteroncecoac ecertan ez dauzqueenac ¿eta nola equingo due oec confesio osoa?

Hori berbera galde diezaioke edonork bere buruari, euskararen mundua ikusita. *Status* eta *Corpus*, horra hor koxka.

Euskararen corpusa, zaindua omen du Euskaltzaindiak. Statusarena, aldiz, umezurtz dugu, zabuka eta katramilatua da-bilkiguna. Status eta corpus, nola uztartu horiek, euskararen konfesio osoa egiteko?

Batzuek izena jarri diote jaiobakoari: Normalkuntzaindia. Abizenak ere berehalakoan: euskararen statusa. Izaera, erakundeena. Xedea: hizkuntz plangintza, euskararen funtzioak gizartean.

Plangintza zabala eta demokratikoa, paperean agerikoari kasu eginez geroz.

Euskal konfesoreari barrunbean gelditzen zaion galdera, ordea, bestelakoa: ez al da hori botere publikoaren egitekoa?

Ala hemen ere, lehenengoa esan behar, penitentzia ezarri baino lehentxoago: Bihar batean, agian, euskararena ere.

LAUGARREN ERACUSALDIA

Era berean Alcate, Erregidore, Bolsero, Vecino, Diputadua ez - padaquizqui bere equinbideac, eta jaquin ere nai ezpaditu: orde - nanzac iracurtzen ezpaditu ¿nola erantzungo dio bere carguari?

Euskara garaikoa dugu. Horren lekukotza, PSE-EEk anto-laturiko jardunaldi sonatuak, euskararen egoerari buruzkoak.

Jakingarriak, baita ere, Ramon Jaureguiaren ahaleginak euskaraz mintzatzeko. Nabaritzeko, ildo beretik ere, sarri askotan alderdi horretako beste alderdikide batzuek erakusten duten euskararekiko axolarik eza, alderdi barruan sasoi batean bizi ziren euskal zantzuak ahaztu ere egiten dituen, Toribio Etxebarria eibartarraren apu ia topiko eta mitikotik hasita.

Jardunaldiak bai, eguneroko jarrera eta errealitatean euskararekin harreman sendoagoak ere bai. Irakur bitzate, bestela, euren aurrekoenak.

Baina hori ere, argi denez, bihar baterako utzi behar.

BOSTGARREN ERACUSALDIA

Errico cargudun cera, edo izan cera? Beartua zaude jura-mentuz bearbada, erriaren gaucetan erriari, Komunarenetan Komunari leyalqui beguiratzea, batarena besteri emangabe.

Komunarrak eskatzen zuen, duela hirurogeita hamabost urte, euskal kulturaren inguruan zertxobait egitea eta egituratzea.

Sasoi hartakoek lortu, eskuratu zuten, lehendik zetorrena bideratu eta erakundetzea, urrats berriak emateko ildoak landuz.

Goldea jakindura zuten. Idiak, borondatea eta euskaltzale-tasuna. Lurra, unibertitate-simaurrik gabeko basamortua zuten. Eremutarrak, lan eta lan. Geldiketa gerokoan etorri zitzairen.

Egun ere, asmo berri batzuk eskuartean darabiltzate hangoek. Euskal Komunitate Zientifikoa osotu gura. Helburu zaila, gure arteko sakabanatze larriak tarteko direla.

Bitartekoak ere faltan izan ohi dituzte halakoek. Ea oraingoan patu hori aldatzen den.

Biharko baterako itxaropena, beraz, Eusko Ikaskuntzarena.

SEIGARREN ERACUSALDIA

Azquena, hain sotila eta ezereza, ezen erraz eta labur irakurtzecoa baituzun, ene irakurle preziatua.

75 urte bete ditu Euskaltzaindiak. Urteurren betea, bete ere, euskal erakunde honetan. Aitapontekoa izan zuen aspaldi hartan Eusko Ikaskuntza. Egun, aitabitxi barik, erakunde sendoa dugu jada eta martxan dabilkiguna. Martxarik martxa, abiadura ere areagotu egin zaio gure Euskaltzaindiari eta hor dugu, abiabide osoan, euskal gizarteari euskarazko arau-gomendioak ematen.

Betoz arau-gomendioak, eta betoz, bide beretik ere, langintza honetan erabili behar den sistematizazioa, argitasuna eta zergatik ez, teknika araugile batzuen aprobetxamendua, gehienon gustokoa izan dadin.

Agian, eta azkenez, biharko batean horixe ere.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

BALANTZEEN BALORAZIO DESBERDINA

Kontabilitateko izkutuetatik barrena abiatu nintzenean —eta ordudanik ia hogeita hamar urte eman dira oharkabeen— ezin nezakeen pentsa balantzeek era askotako orekak zein desorekak azaltzeko balio zutenik. Nire jakinduriaren eskema txiki hartan numeroei eskaintzen nien lehentasuna, beste zenbait balore-mota ere Aktibo eta Pasiboaren koordenadetatik pasara zi genitzakeela iragarri gabe. Hala eta guztiz ere, eta kontabilitatearen zutabeak nigan sendoagoak zirenean irakasle haietako batek egin zigun mugaketa ez dut oraindik ahantzi: *atera bezain laster zaharkitua dagoen argazki baten antzekoa dugu balantzea. Ez digu, berez, ezer adierazten.*

Definizio hark geroko urteetan biziki lagundu dit. Eta «Galerak eta Irabaziak» konzeptu erlatiboa dela konturatu ahal naizen bezalaxe —zenbat dibidendo banatu dira, fikziozko irabazien kontura!!— balantze itxi bateko osotasunak errealitatea nekez adieraz dezakeela jakin dut, izan ere garrantzitsuena ez baita argazkia, horrek inoiz jasoko ez duen tendentziaren ebaluazioa baizik. Beraz, balantzeak hankamotz geratzen zaizkigu eta balantze-bateria bat beharko genuke joerak norantz garamatzen antzeman dezagun. Baina uneko joera ezagututa ere, zalantza beti nagusi izango da, biologikoki aztertuta bizitza zeharo zalantzakorra baitugu. Eta pertsonen erreakzioetan gainerako baldintzek biologiak beste indar dutela gogoratzen badugu —politikoak txikienak ez direlarik— irakurlea nirekin egongo da balantzearen deskribapenak oso muga estuetara behartzen gaituelakoan.

Biologia aipatu dut eta gauza jakina da kultura biologi premiak asetzetik sortzen dela batipat. Baina pertsonak ez du bere premiaren sua amatatzen animalia den aldetik, beharren ingurutik estatus jatorragoa eta hobea lortu nahi duelako baizik. Hortik, bada, etsipenaren jatorburua, baten helburuak topo egin baitezake bestearen nahiarekin eta bien arteko gatazkan norbait galtzaile aterako da. Horixe da, ene uste apalean,

euskal gizartean orain arte bederen nabarmenduriko fenomeno disfuntzionala. Horren egiaztapenak eraman al du Anjel Lertxundi, «*hondoa jotako herri baten itxura guztiak ditu gure honak: noraeza da nagusi; indefinizioa gida, hezurdura eza ardatz*» idaztera? Ez nuke ezetz esango.

Baina, derrigorrezkoa al da —gauden egoeran egonik— istilu itsusi eta izengabeko amaitezinean euskaldunok galtzaile kronikoak izatea? Zenbat mende darama *Euskal Herriak* bere burua aurkitu guran? Noiz egon da Vasconia zaharra egun bezain ahaltsu, euskaldunoi dagokigun kalitate-maila emateko? Arrapaladan datozkidan galdera horiei unetxo bat eskaini gabe aurrera nekez joko dugula iruditzen zait eta norbaitek «*inozo halakoa!*» bota diezaidakeen arren, esfortzuak merezi duelakoan nago.

Masokista ez den inork ez du behin eta berriz garaitua izateko sentimendua atsegin eta ez dugu ahaztu behar garaitua eta jipoitua sinonimoak ditugula gehienetan, eta gure kasuan beti. Espainiako Urrezko Mendeetatik euskalduna (*vizcaino*-a) barrerarrizko osagarria izan da haien literaturan eta gaur egun ere horrela da, espainiar komunikabideek euskaldunen esparrua folklore huts bezala azaltzen digutelarik. Baina, kontuz!, ezin dakioke soil-soilik Madril zein Paristik datorren jarioari erru osoa leporatu, ezta gutxiagorik ere. Dena den, iruditzen zait aspalditik ari garela lelo berdinarekin bueltaka, ez al da horrela? Masokistak berbiote, beraz? Gure patu miserablean gozatu egiten dugula esango luke edozein behatzaile kritikiko inpartzialek. Baina hori ez da egia eta euskaldunok bakarrik dakigu zer nolako sufrimendua den gurea, bide egokitik —ez dut esaten ZUZENETIK, hori gehiegi bailitzateke— noiz abiatuko ote garen zain.

Komentzituta nago *vasco* izatea borondatezko kontzeptua dela. Horregatik Juan Mari Bandres jauna, berak horrela nahi badu, Arzallus bezain *vasco*-a izan daiteke, arestian aldarrikatu duen bezala. Baina *psoezialista* ohiak uka ezin dezakeena zera da, Arzallusek euskalduntasunean lehia irabazten diola. Eta Mayor Orejak ere Euskadiko lehendakaritzarako oposizioak egin ditzake, nahiz eta euskara ikasteko inolako gogorik

ez duela garbi utzi duen. Baina, itxura guztien arabera, badi-rudi alderantzizko jarrera —hau da, ni euskalduna naiz eta nahikoa dut— ez daudela prest onartzeko. Eta indarra erabiltzen dute gure nahia, erabat legitimoa!, deuseztatzeko.

Urriaren 23ko hauteskundeetako emaitzak dardara batean ipini omen ditu gure Herriaren zutabe politikoak. Eta bapatean batzuen autoitsukerian argia egin da eta euskal mosaikoa margo askotakoa dela konturatu dira. Bazen garaia! Orain Eusko Jaurlaritzako osaketa berriaren zain gaude, ejekutibo horrek ekarriko dituen neurriak nolakoak izango diren ezagutzeko irrikan. Niri, behintzat, gustatuko litzaidake Hezkuntza Saitetik konponbidea ematea Unibertsitateko hainbat Fakultatetan pairatzen ari diren irakasle euskaldunen ezari. Parentesien artean diodan, ezin dudala ulertu nola ez zitzaion orain dela hamabost urte inortxori otu, ikastoletako ikasleen jarioari Unibertsitatean jarraipena eman behar zitzaiola. Bestalde, gustoz ere hartuko nuke, Euskal Elkarte Autonomoko Unibertsitatearen eraikuntzan, behin eta betikoz, egiazko artikulazioaren programazioari ekin diotelako albistea. Eta gustatu eta gustoz idatzi ditut, suabe-suabe, itxaropen horren atzean ESKUBIDE osoaren oinarria dagoela ahantzi gabe.

1984ko Otsailean bisita bat egin nion Montrealen Quebec-eko Kultura Ministroa zen Clement Richard jaunari. Jaurlaritza abertzale baten ordezkari bezala nindoan eta Hezkuntza eta Kultura Sail bakar batean genituela bilduta azaldu nionean, «*Euskal Herrian ez duzue hezkuntza-arazorik, ala?*» galdetu zidan, ahaleginik handiena kultur arloari eskaintzen geniolakoan, nonbait. Ez nuen bere uste okerretik atera nahi izan, neronek ere ez bainuen ongi ulertzen desproposito hura. Hamabi urte joan dira ordudanik eta zurrumurruek diotenez, gaizki ulerturiko ekonomi arazoak direla-eta, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila desagertzeaz dago, besteren batek irentsia. Abertzale naizen aldetik atzerapauso itzela irudituko litzaidake, administrazioko murrizketan aitzakian erabaki hori hartzeak ez bailioke mesederik egingo, nire gisako kaskailon baitan den nazio-proiektuari.

Eta, esanda utzi dudana bezala, kulturara biologiarren bideetatik iristen bada ere, legea, hezkuntza eta ekonomi antola-

kuntza sendoa behar-beharrezkoak ditugu haren jarraipena bermatzeko. Niri iruditzen zait, errealista naizelako, gaur egun Euskal Herria zatitua dagoen hiru administrazio-esparruetatik bitan baldintza guztiak ematen direla euskaldunoi lege, hezkuntza eta ekonomiatik erantzun egokia emateko. Bi horietako batek, gainera, abertzaletasunaren «label»a erakus dezake oraindik. Beraz, borondate politikoa bihurtzen zaigu erabateko faktore gure gizartearen premien konponbidean. Eta ez dadila inor etorri inobilismorik itxienetik pertsonaren albedrio askearen izenean mintzatzera! Horrelako planteamenduak egin direnean, ez dakit zergatik baina beti euskaldunon kalterako izan ohi da. Badirudi gure izaerari dagokion tratamendua bigarren mailakotzat hartzen dela, baita hemengo instantzietan ere. «Itxaron dezagun», «oraindik ez da ordua» eta antzekoek pentsamolde atzerakoi bezain mesfidagarria erakusten dute eta euskal gizarteak bere nortasunari eutsiko badio jarrera ausartei esker lortuko da.

1994ko Kultur Balantzeraren partida berriak azaldu dira. Kontabilitatearen mekanikak agintzen duenez, «Galera eta Irabaziak» deritzanaren bitartez agertu behar dira asiento guztiak, amortizazioaren bidez besterik ez bada ere. Zerrenda luzea sar genezake aurtengo Balantzean. Baina partiden balorazioa egiteko orduan aditurik zintzoenak ere bere zalantzak izango lituzkeela uste dut. Ez da batere erraza eta, intangibleekin gertatzen den bezala, baliteke Aktiboan egon behar luketen batzuk epe laburrean Pasibora igaro behar izatea, «kanbio-diferentziaren gorabeherak» direla eta. Gauza jakina da euskaldunok ez dugula, operazioa hitzartzean, dibisaren balorea aseguratzeo ohiturarik eta akats horrek buruhauste franko sortzen ditu.

Edozein Balantzeri eska dakiokkeen nolakotasunik garrantzitsuena sendotasuna da. Horrexek ematen dio egiazko balioa, behin-behineko operazioek mesfidantza sortzen dutelarik. Beste arlo-batera estrapolatuz, ekonomiaren zuzperraldia «pilota-rien» kulturak inoiz ekarriko ez duen arrazoi berdinarengatik kultur eraikuntza ez da finko gauzatuko bere iraunkortasuna bermatzen ez duen politika sendorik gabe. «Goodwill» edo merkatal fondo bezala ezaguna dena dugu edozein enpresa balo-

ratzean adituek kontuan izandako kontzeptua. Balantzeko ageriko partidak baino gehiago beste zenbait faktore aukeratzten dituzte enpresa erretorkizuna kalkulatzeko: barne-antolakuntza, markaren ezarketa, merkatal sarea, antzinatasuna eta abar. Ez dira fidatzen, besterik gabe, zenbaki hotzek diotenaz.

Euskal Herriko Kultur Balantzea osatzen joan ahal izateko, uneko operazio eta gertaerak baino lehenago azpiegituraren egonkortasuna aztertu behar da, niri ez baitzait iruditzen, adibidez, Egin-eko Ertzaintzaren miaketa, Berako Nafarroa Oinez-en izandako istiluak, PSE-EEren euskarari buruzko topaketak edota euskalgintzaz EAeko gobernukideen artean emanikako eztabaida zorioneko Balantze horretan sartu behar direnik. Ordea, «*Lana ona, bermea osoa*» lemapean Ertzaintzak lanpostu berriak eskaintzeko irekitako kanpainak Balantzearen Pasiboa eskatzen du, berez, frantsesa, ingelesa, alemaniera, errusiera eta arabieraren pare ipini baitute euskara...beti, zoritxarrez, espainieraren morroi. Horrexek arduratzen nau zeharo, epe luzerako plangintzan ari baikara eta abiapuntua okerra izanik etorkizuna hipotekatzen ari gara... hau da, oinarrietatik ahultzen.

Adibideekin jarraituz, Guggenheim museoak on ala txarrik ekarriko ote digun baloratzeko ez dut batere erreferentziarik. Balantze guztietan bezala, zorpea luzarokoa ala epe motzekoa den aztertu beharko litzateke... eta baita ongi begiratu ondare-egitura desorekatua geratzen den ala ez. Batzuei gezurra irudi dakiekeen arren, inoiz Euskadin eginiko inbertsiorik etekinkorrena gerta bailyteke. Zer-nolako eragina du inbertsio horrek gainerakoen sailkapenean? Oztopo al da besteen garapenerako?

Niri, behintzat, gustatuko litzaidake Guggenheim museoa —edo beste edozein izeneko kapitalizazio bera— Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren egitura sendotuekin batera Balantze berdinean ikustea. Ura eta gatza ukatu zaizkien elkarte horiekiko erakundeen egiazko konpromezuak Aktiboaren garrantzia areagotuko luke, Euskal Herria osoan sortzezko eskubidearekin lanean diharduten bi elkarte horien behin-betikoko finkapenak euskal gizartearen osasuna bermatzen lagun-

duko lukeelarik. Eta hori horrela ez ikustea...itsu nahi izatea da. Antzematen zaidala lana non egiten dudan? Ez, motel ez! Horrela uste baduzu ez duzu ezer ulertu.

Begira, iaz ere data hauetan gutxi gora-behera, urteko ezinbesteko balantzea marrazteko lerro batzuk idatzi behar izan nituenean, aukera hartarako asmatu-rik aforismo batekin amaitzen nuen nire aportunazioa: *Malum ex integro defectu*. Agian, ogibideak eskainitako esperientziak behartzen nau zuhurra izatera. Baina ez derrigorrez ezezkor jokatzera. Era askotako ehundaka balantze igaro dira azkeneko hogeitau urteotan nire eskuetatik eta badakit egitura sendoenekoa ere auditorearen apeta izkutuak dardaraz ipin dezakeela. Eta ahulena, aldiz, indartsu bilaka daiteke Pasiboko birsailkapenaren bidez. Giza jarraera guztiak aproposak direla abiapuntu axiomatikoa da. Eta iraganeko ekintzen ondorioek, gure nahiei dagokienez, pertsonok baloratutako errealitatean eta etorkizuneko ekintzen aurretik harturiko jarre-retain eragin zuzena dutela ere bai. Baina, hain zuzen ere axiomaren garapenak berak eraman gaitzake ohitura eta erakundeak oinarritzko giza premien asetze beharretik jaio direla egiaztatzen.

Inflexioko puntu garrantzitsu baten atarian aurkitzen garela esango nuke. Oso oker egongo nintzateke lerro hauek argitaratzen direnerako euskal giroan kalitatezko aldaketa positiboa ez bada eman. Norabidearen zuzenketa jarraiarari eutsiz gero epe ertainean terreno dezente berreskuratuko genuke. Baina, inolako dudarik gabe, eguneroko ahalegin horretan zer esan handirik dugu oinezko hilkorrok. *Pelikulako* protagonistak izaten ohitu behar dugu eta inondik ere ez ahaleginetan etsi. Pelikula hitza erabili dut, Balantzea argazkiarekin alderatu baitut gorago eta, bata bestearen atzean ezarritako Balantzeen bateriak pelikularen eszenak eskainiko dizkigu.

Orain arte ikusitakoaren arabera pelikulak ez du amaiera onik iragartzen. Baina oraindik garaiz gabiltza eta sekuentzien kalitateak hobera jo dezake. JO BEHARKO DU herri honetan ilusioa berpiztuko bada.

Sarri, gure artean zer gertatzen ari den salatzeak euskal gizarteari bost axola diola ematen du. Gazteriaren borondatea mezu arrotz eta elbarrigarriek preso dutela esan liteke, gizarteko azalean arakatuz gero. Helduagooi, berriz, berehalako errentabilitatearen lilurak itsuarazi gaituela lepora dakiguke. Baina azalaren azpian mamia dagoela ahazten dugu maiz eta huraxe da eraikinaren oinarria, gure ahalegin guztien azken helburua.

Euskal kultur ikerkuntzarekin harremanetan ari garen guztiok beharrezko ariketa dugu egunero itxaropentsu jaikitzea, ilusioa galduz gero arriskutan ipiniko baikenuke etorkizuna. Eta geuri —eta ez beste inori— exijitu beharko litzaiguke balizko galeraren gaineko errespontsabilitatea. Horrexegatik, aurtengo Kultur Balantzea neurtzekoa baino kaxkarragoa dela pentsatu behar dut, nahita ez.



IBURUAK

JOAN MARI TORREALDAI
EUSKAL LIBURUGINTZA 1993

EUSKAL LIBURUGINTZA 1993

JOAN MARI TORREALDAI

Urtetik urtera gora doa euskal liburu-produkzioa. 1993an 200 titulutan egin du gora. 1.200 liburu atera dira euskaraz urte horretan. Sekula baino gehiago. Dena ez da urregorria, baina. Gorakadarekin batera aztertu behar dira horren baldintzak ere, dependenziak, desorekak eta joerazko arriskuak.

Horixe da hain justu hurrengo orrietan egin asmo duguna. Baina urteko produkzioa bere soilean ikusi aurretik, argigarri da produkzioari ikuspegi diakronikoz heltzea, azken hiruzpalau urtetako eboluzioa aztertuz.

Laukiz lauki joango gara, azalpenak eginez.

PRODUKZIOA, GORA

| | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 |
|------------------------------|-------|-------|-------|-------|
| Titulu-produkzioa | 828 | 966 | 980 | 1.993 |
| <i>Urtez urtekoa</i> | +13,1 | +16,6 | +1,4 | +21,7 |
| Lehen argitarapenak | 690 | 799 | 755 | 983 |
| <i>Lehen argitarapenen %</i> | +17,1 | +15,7 | -5,8 | +30,1 |
| Berrargitarapenak | 138 | 167 | 225 | 210 |
| <i>Berrargitarapenen %</i> | -3,6 | +21,0 | +34,7 | -6,6 |
| Euskaraz Sortuberriak | 377 | 453 | 459 | 646 |
| <i>Sortuberrien %</i> | +6,4 | +20,1 | +1,3 | +40,7 |
| Itzulpenak | 307 | 404 | 328 | 429 |
| <i>Itzulpenen %</i> | +24,2 | +31,5 | -23,1 | +30,8 |

Lehen lauki honetan ikusten dugun progresioa positiboa da oso. Ikus ditzagun kontzeptuak banan-banan:

- *Titulu-produkzioak* azken urteotako gorakadarik handiena izan du: % 21, hots, 200 liburutik gora. Azken bost urte hauetan, 1989 salbu, urtero izan du igoera produkzioak. Batezbesteko igoera, bost urtetan, 74 titulukoa izan da. 1993an, aldiz, 200ekoa.

- *Lehen argitarapenak* gorakada are handiagoa izan du: % 30. Berrehun liburu berri baino gehiago esan nahi du horrek. Datu baikorra da hau, iazko jaitsialdiaren ondoren.

- *Titulu-produkzioaren* gorakadan parterik izan ez duena *berrargitarapena* da. Liburu-mota hau gutxitu egin da, aurreko bi urteetako *boom*-aren ondotik; aipatu urte horietan bikoiztu egin zen, eta 1993an pittin bat jaitsi.

Zikloen hipotesia aipa daiteke hemen. Liburuaren kontsumoa ez da genero eta klase guztietan erritmo berean gertatzen. Helduen literaturak gazteenak baino bizialdi luzeagoa du. Bestalde, bizialdi hauek ongi ezagutuz, argitaldarien birprodukzioa programatu egin dute. Azkenaldi honetan ikusten dugun *berrargitarapen-erritmo* hau ez ote da guzti horren fruitu?

- Urteko gorakada *euskaraz sortuberriko liburuak* eragin du gehien. Hazkuntzaren % 65 zor zaio honi. Aspaldiko han-

diena da urteko liburugintza osoaren gain sortuberriak duen pisua: % 54, erditik gora.

Euskaraz sortuberri den liburuak hartu duen abiada hau, oker ez bagaude, aipatu duguna baino txikiagoa da, egiaz eta benetan. Liburu dexente, itzulpena da, deklaratu gabe bada ere. Baina liburuak berak ez badakar itzulpena dela, guk ezin dugu itzulpentzat eman, nahiz eta ia-ia ziur egon norbera. Eusko Jaurlaritzak atera ohi dituen hainbat eta hainbat liburu elebidunen kasua dateke hori. Bestalde, kreazioaren jatorrasuna erlatibizatu egin behar da euskalkiz bakarrik aldatu diren liburuetan. Haiek eta hauek baztertuz gero, egiazko euskal krea-zio proioa % 42 bat litzateke, 500 bat liburu.

• Titulu-produkzioaren gorakadan % 35 *itzulpenari* dagokio. Ehun bat liburutan egin du gora; guztira, 400 eta gehiago. Bostetik bat da berrargitarapena, liburu itzulian.

GAI NAGUSIEN IBILBIDEA

| | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 |
|-----------------------------|-------|-------|-------|-------|
| Irakaskuntza | 208 | 197 | 372 | 485 |
| <i>Irakaskuntzakoen %</i> | +50,7 | -5,2 | +88,8 | +30,3 |
| Euskara ikastekoak | 38 | 67 | 75 | 54 |
| <i>Euskara ikastekoen %</i> | -52,5 | +76,3 | +11,9 | -28 |
| H G literatura | 260 | 331 | 220 | 207 |
| <i>H G literaturaren %</i> | +26,2 | +27,3 | -33,5 | -5,9 |
| Literatura | 156 | 144 | 134 | 185 |
| <i>Literaturaren %</i> | +28,9 | -7,6 | -6,9 | +38 |

Jakina da, eta gero aztertuko dugu hori, hiruzpalau multzotan pilatzen dela liburu-ekoizpena. Pentsatzekoa da, hortaz, produkzioaren gorakada ere hiruzpalau horietan izango dela nabarmenena. Zein proportziotan, ordea? Hazkunde hori nola banatzen den batean eta bestean, zeinek egiten duen gora eta zeinek ez, esanguratsua da hori eboluzioaren norabidea ezagutzeko.

1993ko gorakada irakasliburutan izan da. Azken bi urteotan aurreko produkzioa bikoiztu eta gehiago egin da. Honen klabea *Logse*-k ekarritako erreforman dago, zalantzarik gabe.

Literatur liburuak ere gora egin du, maila apalean, 50 bat liburu.

Behera egin dute, aldiz, bai euskara ikasteko metodoak, eta bai haur eta gazteentzako (HG) liburuak ere. Liburu-mota honek, haur eta gazte-literaturak, azken bi urteotan irabazi barik galdu egin du, 125 liburu galdu ere. Saturazio-puntuari ote dago, bada?

TESTU-JATORRIA LIBURUTAN

| | | 1990 | 1991 | 1992 | 1993 |
|---------------------|---|------|------|------|------|
| Elebiko liburua | % | 8,0 | 12,0 | 10,0 | 9,5 |
| Liburu itzulia | % | 36,5 | 42,0 | 33,0 | 35,9 |
| Liburu berrargit. | % | 16,5 | 17,0 | 23,0 | 17,6 |
| Sortuberria (Eusk.) | % | 45,5 | 47,0 | 47,0 | 54,1 |


Testuaren jatorriari begira, testu-mota desberdinak bereiz genitzake: testu berria/zaharra; euskalduna/euskaratua, etab.

Azken urteotako eboluzioan aurten jo du gailurra testu euskaldun berriak. Urteko produkzioaren erdia eta gehiago da, gainera, berari dagokiona. Bost urtetan marra horren azpitik ibili da produkzio propioa.

Liburu berrargitaratuak duen pisuaren eboluzioak puntu gorena 1992an hartu zuen, eta berriro itzuli da orain aurreko proportzioetara.

Aurreko urteko proportzio beretsuan segitzen du itzulpenak, 1991ko gorakada hura gorabehera.

1993ko testu-jatorrien arteko banaketa laukian baino argiago ikusten da grafikoan.



Testu-mota hauetako bakoitza non mamitzen den gehienbat ikusiz, hobekixeago antzeman ditzakegu joera nagusitxoena.

Sorkuntzazko testua irakaskuntzako liburuetan nagusi da (% 46), baina ez beste inon.

Berrargitarapena zabalduago dago, orekatuago: % 34 literaturan, % 32 irakaskuntzan. Eta haur eta gazte-literaturan ere badu pisurik.

Itzulpenak, bere aldetik, bi kokaleku ditu gogokoen: haur-literatura eta irakaskuntza, % 34 bakoitzean.

Liburu elebidunak ez du sail pribilegiaturik: lehen lauetan proportzio beretsuan dago zabaldurik.

SORKUNTZA

| Ordena | Saila | Kopurua | % |
|--------|-------|---------|------|
| 1 | 08 | 298 | 46,1 |
| 2 | 01 | 73 | 11,3 |
| 3 | 21 | 72 | 11,1 |
| 4 | 28 | 46 | 7,1 |

BERRARGITARAPENA

| Ordena | Saila | Kopurua | % |
|--------|-------|---------|------|
| 1 | 21 | 72 | 34,2 |
| 2 | 08 | 67 | 31,9 |
| 3 | 01 | 50 | 23,8 |
| 4 | 11 | 4 | 1,9 |

ITZULPENA

| Ordena | Saila | Kopurua | % |
|--------|-------|---------|------|
| 1 | 01 | 146 | 34,0 |
| 2 | 08 | 145 | 33,8 |
| 3 | 21 | 60 | 14,0 |
| 4 | 23 | 31 | 7,2 |

ELEBITASUNA

| Ordena | Saila | Kopurua | % |
|--------|-------|---------|------|
| 1 | 08 | 18 | 15,9 |
| 2 | 19 | 16 | 14,1 |
| 3 | 05 | 15 | 13,2 |
| 4 | 23 | 13 | 11,5 |


LIBURU-MULTZO NAGUSIAK

Urtero errepikatu beste erremediorik ez dut: gai-sail gutxi batzutan metatzen da produkzioaren gehientxoena; aurten, zehazki % 80,8 lau sailetan.

| Ordena | Saila | Gaia | Kopurua | % |
|----------------------------------|-------|----------|------------|-------------|
| 1 | 08 | Irakask. | 485 | 40,6 |
| 2 | 01 | H. lit. | 220 | 18,5 |
| 3 | 21 | Literat. | 185 | 15,5 |
| 4 | 23 | Historia | 74 | 6,2 |
| <i>Orotara, sail hornituenak</i> | | | <i>964</i> | <i>80,8</i> |

Gai-sail horien *ranking*-ean ere ez dago nobedade handirik. Lehen hiruak, betikoak: irakaskuntza, literatura eta haur eta gazte-literatura. Laugarrena, apalagoa izan da beti: urtetan euskararen irakaskuntzako materiala izan da, baina aurten historia da.

Irakaskuntzaren proportzioa izugarria da, desorekatzailea. Ez dakit iraukorra izango den ala ez. Erreformari lotua joango da, noski. Haur-literatura dator bigarren postuan; aurreko urteetakoa baino proportzio bajuagoa du, baina nahiko egokia. Larrien literatura ere proportzio onean dabil.



Kopuru handiena biltzen duten gai-sail horietan, baina, zein jatorritako testua da nagusi? Nola elikatzen dira: kanpantik?, barrutik?, zaharretik?, berritik? Zertan esanik ez da, kua-litatiboki ez dela berdin, eman dezagun irakaskuntzan, bertoneko ekoizturiko liburua erabili edota kanpoan aukeratu eta itzulia. Beste hainbeste gainerako sailetan, eta bereziki literaturan.

| Gai-saila | Eusk. | Eleb. | Berrarg. | Itzulp. | Orot. |
|---------------|-------|-------|----------|---------|-------|
| 08-Irakask. | 61,5 | 3,5 | 14,0 | 30,0 | 485 |
| 01-Haur lit. | 30,5 | 2,5 | 21,0 | 61,0 | 220 |
| 21-Literatura | 39,0 | 0,5 | 39,0 | 32,5 | 185 |
| 23-Historia | 54,0 | 17,5 | 5,5 | 42,0 | 74 |

Ikus ditzagun punturik nagusitxoena:

Irakaskuntzan, zorionez, bertoko produkzio propio berria da nagusi: % 61,5. Urruti dator itzulpena: % 30.

Haur-literatura itzulpenetik bizi da % 61ean. Eta honen erdia ere ez da euskal produkzioko liburu berria: % 30,5.

Kasualitatez, irakaskuntzan eta haur-literaturan euskal produkzioaren eta itzulpenaren proportzioak berdinak dira, lehentasunak trukatu.

Literaturan hiru modutara iritsi gara 185 liburu ateratzera: % 39 euskal produkzio berriz; % 39 argitarapenaren bidez; eta % 32,5 itzulpenez.

Historiako liburuetan inportantea da bertoko produkzio berria (% 54), baina ez da arbuiatzekoa kanpoko ekarria (% 42).

LITERATURA

| Ordena | Azpisaila | Azpigaiia | % |
|--------|-----------|---------------------------|------|
| 1 | 212 | Narrazioa | 72,0 |
| 2 | 213 | Olerkia | 10,0 |
| 3 | 214 | Antzerkia | 7,5 |
| 4 | 215 | Herri-literatura. Bertsoa | 7,0 |
| 5 | 211 | Historia. Kritika | 4,5 |

Literaturak, orokorrean, gora egin du, arestian aipatu bezala (% 38, hau da, 51 liburu gehiago), gorakada horrek % 39 berrargitarapenari zor badio ere. Urteko produkzio propioa ehun liburu pasatxo da, berrargitarapena kenduta. Ez da ika-ragarri.

Gero eta handiagoa da tarte narratibaren eta olerkiaren artean. Sailaren barruan, hazkundera narratibarrena izan da unilateralki. Narratibak, orain, literatur produkzioaren lautik ia hiru suposatzen du; eta 20 libururen bueltan geratuta dago olerki-liburuen kopurua.

ARGITARAKETAZ ZENBAIT OHAR

Etengabeko analisisetan murgil bagaitezke ere, ez. Lerro lodienak bakarrik seinatzea dugu asmo.

- Agente argitaratzaile ugari dago euskal edizioan, pertsona fisiko zein juridiko. Autore-editorez gain, ugari dira, bai, talde, elkarte, erakunde eta antzeko, liburu-argitaratzaile gisa agertzen direnak.

- Enpresa argitaratzaileen ekoizpena, enpresena diogu, % 61,3 da, hau da, 750 bat liburu. Kopuru hori bertoko eta kanpoko editoreen artean lortua da. Bertokoek % 73 eta kanpokoek 27.

(Kanpoko editoriala esatean zera adierazi nahi dugu: argitaratzaile horren egoitza Euskal Herritik at dagoela, *Anaya* kasurako edota kanpoko talde handiago baten partaide direla, *Giltza/Edébé* edo *Zubia/Santillana*, adibidez).

- Edizio profesional-komertzialetik kanpo produzitu da, bezaraz, % 40. Multzo bat baino gehiago aparta ditzakegu % 40 hori produzitu dutenen artean.

Edizio instituzional-administratibo-politikoak da garrantzizkoena: % 14,5 produzitu dute Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek edo Udaletxeek. Edizio-mota honi lotu diezaiokegu erakunde finantzarioen % 2a ere, eta guztira 200 bat liburu etorri da hauen eskutik.

Bigarren multzo batek ere badu indarrak gurean. Kultura-ko talde eta elkarte, Unibertsitate, irakastalde, erakunde eta gisakoek % 14,5 produzitu dute, 125 bat liburu gutxienez.

- Baloraziotan laburbilduz, ia % 40 enpresa argitaratzaileetatik kanpo produzitu izana, asko da, gehiegi da berez. Hori bateko. Eta besteko, bertoko enpresa editorialek % 45 bakarrik kaleratu dute. Joerazko arrisku beltzak ikusten ditut nik horizontean.

Euskal editorialgintzak buztinezko zangoak ditu. Euskal editorialak txikiak dira; enpresa gisa, ez ote txikiegiak? Merkatuaren esklabu ez izateko, kultur politika bat markatzeko eta ziurtatzeko gerora, kanpokoen erasoei aurre egin ahal izateko bertoko enpresak indartu behar badira, egitura txikiegiekin gabiltza.

Ehundik gora liburu bik bakarrik produzitu dituzte: *Elkar*-ek 225 eta *Ibaizabal*-ek 148. Hurrengoak, *Erein*, erdibidean dagoela esan daiteke, 72 libururekin, zeren eta gainerakoak 25etik behera baitatoz, salbu *Zubia* eta *Giltza* (Liburu-mota dela eta, *Tartalo* aparte uzten dut, baina egin kontu 88 liburuska atera dituela).

Editorial gisa indartzeko mila formularik ez dago euskaraz. Literatura ez da nahikoa. Erdarara jo daiteke, eta jotzen dute batzuk. Baina horrelakoetan, gehienetan, euskal adarrak bigarren maila hartzen du berandu baino lehen. Gaurko euskal editorial handienak batez ere hiru alor landuz bizi dira, proportzio desberdinetan bada ere: helduen literatura, haur eta gazteen literatura eta irakasliburua. Hirugarren honetara, irakaskuntzarako materialetara, zuzentzen dute gehien produkzioa: *Ibaizabal*-ek % 87, *Erein*-ek % 51 eta *Elkar*-ek % 46.

LIBURUGINTZA ERKATUA

Beti izan dut gogoia, eta egunen baten egin nahi nuke luze eta zabal, euskal produkzioa gure antzeko edo inguruko kulturakoekin konparatzekoa. Beti egiten baitidate galdera bera: homologarria al da gure liburugintza? Zertan da berdina eta zertan diferente, eman dezagun liburugintza katalanarekin, galegoarekin eta —zergatik ez— espainolarekin?


Oraingo honetan oinarritzko analisi bat eskainiko dut, aurrerakin gisa.

Kopuru nagusiak gogoratzea komeni da, hasteko: euskaraz 1.193 liburu atera da 1993an; katalanez, 5.905; galegoz, 1.058; eta gaztelaniaz, 41.206.

Zenbat publikatu den da hori. Baina **zer** publikatu da?


Lehen hiru gai-sailak berdina dira guztiontzat: haur eta gazte-literatura, irakaskuntza eta hezkuntzakoa, eta literatura “tout court”.

Hona, beraz, hiru gai-sail emankorrenak. Eta hona, dagoeneko, homologarritasun-maila bat. Are inportanteagoa da jakitea herri bakoitzaren produkzioan proportzioak eta lehen-tasunak nola banatzen diren. Horixe da justu hurrengo grafikoetan ikus daitekeena.



Lehen grafikoan liburugintza bakoitzeko lehen hiru gai-sailak agertzen dira, garrantziaren arabera ordenaturik. Produktzio bakoitzean zein den sail bakoitzaren proportzioa ikusten da hor.

Lehentasan-ordena berdina dute lau liburugintzek: lehen irakaskuntza; bigarrena, helduen literatura, salbu katalanean; eta hirugarrena, haur eta gazte-literatura.



Bigarren grafikoan, hiru gai-sail nagusiak hartu, eta sail bakoitzaren barruan liburugintza desberdinen pisua irudikatzen da. Hemen agertzen dira diferentziak, aldeak. Gai-sail etako produktioaren proportzioetan daude diferentziak. Bakoitza bere aldetik doa hor, eta ez da erraza erreferentea bilatzea. Edozein modutan ere, berezitasunik markatuena euskarazko liburugintzarena da, hots, irakaskuntzarako liburuak duen presentzia izugarria baita aurten, produktioaren erdia, esateko.

Seinalatzekoa da, baita ere, hiru sail horietako liburu-metaketa gurean dela handiena. Hiru gai-sail horietan produktioaren % 41 pilatzen da gaztelanian; katalanean, erditik gora, % 52,3; gehixeago galegoan, % 57; eta are gehiago gurean,

% 69. Beste gaien eta bestelako funtzioen hutsunea salatzen du kontzentratze honek, mila aldiz esan dugunez.

Oharrak

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ohar hauek agertzen dira:

- Tituluaren ostean eta parentesi artean: i = itzulpena; b = berrargitarapena; e = elebikoa.
- Izenen artean: / = itzultzailea; // = ilustratzailea (marrazkilari zein argazkilari).
- Izenaren ondoren: * = Prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea.
** = Zuzendaria, promotorea, antolatzailea, ardura-duna, koordinatzailea.
*** = Euskalki-aldatzailea.

2. Ondoko fitxa bibliografikoan 1.193 liburu barik 1.262 agertzen dira. Urteroko argibidea zor dizut: tradizionalki egin ohi dudanez, aurrean ere analisisetatik at utzi dut hizki gutxiko hainbat material.

3. Gogotik eskertzen dut fitxak osatzeko orduan editorialen aldetik jaso dudana laguntza estimagarria. Modu berezian eskertu behar dut Karlos Aiestaran eta Kepa Muruak emandako informazioa eta *Zabaltzen* emandako erraztasunak liburuak kontsultatu ahal izateko.

1993ko LIBURUAK: GAI-SAILKAPENA

| Sailak | | Zenb. abs. | % |
|--------|---|---------------|------|
| 01 | Orotarik. Bibliografia, Kazetaritza. Urtekariak. Haur eta gazte-literatura. Tebeo, komiki eta historioak. Bibliografia. Saiakera eta artikulua gai desberdinez. Omenaldiak. | 240 | 20 |
| 02 | Filosofia. | 12 | 1 |
| 03 | Erlijioa. Teologia. Teologia morala eta praktikoa, pastoralak. Eskritura Saindua. Eliza jeneralean. Liturgia. | 7 | 0,5 |
| 04 | Soziologia. Estatistika. Gizartearen eta gizarte-zientzien filosofia. Gizarte-doktrinak. Lana eta gizartea. Sozialismoa eta komunismoa. Marxismoa. Hainbat estatistika. | 24 | 2 |
| 05 | Zientzia politikoak. Estatuaren teoria. Nazioa eta lurraldea. Finantza publikoa. Zor publikoa. Nazioarteko politika. | 18 | 1,5 |
| 06 | Zuzenbidea. Administrazio publikoa. Asistentzia soziala. Zuzenbide publikoa, politikoa, konstituzionala, administratiboa. | 8 | 0,6 |
| 07 | Arte eta zientzia militarrik. | - | - |
| 08 | Irakaskuntza. Hezkuntza. Hezkuntzaren teoria eta filosofia. Hezkuntz sistemak. Pedagogia. Hezkuntza sexuala. Irakaskuntza eskolaurrekoa eta oinarrizkoa. OHO, BBB eta UBI. Goimailako eta unibertsitateko irakaskuntza. LH. | 485 | 40,6 |
| 09 | Merkatalgoa. Komunikabideak. Garraioak. | 2 | 0,1 |
| 10 | Etnologia. Bizitza pribatu eta publikoetako ohitura eta usadioak. Folklorea. Tradizio eta kondairak. Zuhurrizak, atsoitzak, ateraldiak eta izkirimiriak. | 20 | 1,6 |
| 11 | Hizkuntzalaritza. Filologia. Euskararen azterketa. Euskararen irakaskuntza. Hiztegia. Metodoak. Gramatikak. | 54 | 4,5 |
| 12 | Matematikak. | 2 | 0,1 |
| 13 | Natur zientziak. Astronomia. Nautika. Geologia. Biologia. Botanika. .. | 15 | 1,2 |
| 14 | Medikuntza zientziak. Higiene publikoa. Gaixotasunak. Terapeutika. Higienea. Sanitate publikoa. Osasunaren zaingoa. | 4 | 0,3 |
| 15 | Injinerutza. | - | - |
| 16 | Nekazaritza. Oihanlantza. Abelaskuntza. Ehiza eta Arrantza. Lur-lanketa. | 7 | 0,5 |
| 17 | Etxe-ekonomia. | - | - |
| 18 | Antolakuntza. | - | - |
| 19 | Arte ederrak. Artearen filosofia eta kritika. Arkitektura. Hirigintza. Fotografia eta zinematografia. Artesauntza. Zeramika, altzariak. | 27 | 2,2 |
| 20 | Jostaldiak. Denborapasak. Jokoak. Kirolak. Mendia. | 4 | 0,3 |
| 21 | Literatura. Literatur kritika. Literaturaren historia. Bertsoak. Antzerkia. Elaberria. Olerkiak. Ipuinak. | 185 | 15,5 |
| 22 | Geografia. Bidaiak. Bidaiak, ikerkondeak. Eskualde-geografia. Bidaia-ari eta turistaren gidaliburuak. Euskal Herriko geografia. | 5 | 0,4 |
| 23 | Historia. Biografia. Euskal Herriaren eta honen eskualdeen historia. Biografia. Oroitzapenak. | 74 | 6,2 |
| | GUZTIRA | 1.193 | 100 |

- 1 2 3.** Luis Vives. 23 cm. 10 or.
- 110. Street-eko geltokia.** (b). ZABALETA URKIOLA, Iñaki. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 152 or.
- 41garren Donostiako nazioarteko zinemaldia: 1993ko irailak 16-25 / Festival Internacional de Cine de San Sebastián: 16-25 septiembre 1993 / 41st. International festival of San Sebastian: 16th-25th september 1993.** (e). /BASURTO, Sergio/TORQUEMADA, Jesús*/Festival Internacional de Cine. Donostia. 30 cm. 297 or.
- 54 musika hamabostaldia. Donostia 93, abuztuak 9-irailak 2 / 54 Quincena Musical, San Sebastián 93, 9 agosto-2 septiembre.** (e). /NABARRO, Koro//Donostiako Udala. Donostia. 24 cm. 71 or.
- A ze harroak azenarioak.** (i). MARK, Ja/OLABERRIA, Itziar//ROSS, Tony. Ttartalo. Donostia. 20 x 23 cm. 32 or.
- Abadiño: Historia eta Arte ondarea.** (i). LOPEZ ARBELOA, Blanca/HORI-HORI//Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 24 x 17 cm. 270 or.
- Ada ez da inoiz beldurtzen.** (i). CORDOVA, Isabel; LUCINI, Chata/SUAREZ BARRUTIA, Jon//SM. Madrid. 19 x 15 cm. 31 or.
- Adarrik adar.** (i). RODRIGUEZ ALMODOVAR, Antonio/MONASTERIO, Xabier//SEOANE, Marina. Algaida. Sevilla. 25 x 19 cm. 16 or.
- Adigaiak I (Batueraz).** ATEKA, Piedad//PINUAGA, Amaia; GORROTXATEGI, Sabin*/SAN BLAS, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak I (Bizkaieraz).** ATEKA, Piedad//GORROTXATEGI, Sabin; ARTARAZ, Jabi*/SAN BLAS, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak II (Batueraz).** ATEKA, Piedad//PINUAGA, Amaia; GORROTXATEGI, Sabin*/SAN BLAS, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Adigaiak II (Bizkaieraz).** ATEKA, Piedad//GORROTXATEGI, Sabin; ARTARAZ, Jabi*/SAN BLAS, Marcos. Ibaizabal. Euba. 29,7 x 21 cm. 128 or.
- Afrika beltzean.** (b). GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 19 x 14 cm. 154 or.
- Afrikako semea.** (b). ARANA, Aitor. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 166 or.
- Agorregui (euskera).** ASKOREN ARTEAN. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 53 x 37 cm.
- Agota pastoral.** CASENAVE-HARIGILE, Junes. Euskaltzaindia/Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo. 20,5 x 13 cm. 100 or.
- Ahotsik gabeko aita.** (b/i). LLUCH, Josep/ORMAZABAL, Joxantonio//GINESTA, Montserrat. Elkar. Donostia. 19,5 x 19 cm. 24 or.

- Ahozko Literatura: Genero txikiak.** MARKAIDA, M^a Eugenia; GAMINDE, Iñaki; BARRUETABEÑA, Sabin; KALZAKORTA, Jabier; IBARRA, Jaione; LOPEZ DE LUZURIAGA, Jose Ignacio. Labayru. Bilbo. 21 x 15 cm. 274 or.
- Ahokotasuna. I. Hezkuntzan.** MENDIZABAL, Mikel; KAZABON, Antton//IRASTORZA, Xabin. GIE. Donostia. 24 x 17 cm. 194 or.
- Aingeruak nekez ausartzen diren tokian.** (i). MORGAN FORSTER, Edward/SANTAMARIA, Idoia//Ibaizabal. Euba. 19 x 13 cm. 192 or.
- Ainhoari gutunak.** (b). SARRIONANDIA, Joseba. Elkar. Donostia. 20 x 12,5 cm. 76 or.
- Aireportuko espioia (1. urratsa).** (i). COX, Alwyn/EUSKALTZAINDIAREN OINARRIZKO EUSKARARAKO BATZORDEA//Tinkoketa. Bilbo. 21 x 15 cm. 30 or.
- Aita Santi Onaindia eta Alfontso Irigoien bertsogintzaren lekuko.** ASKOREN ARTEAN. Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbo. 14 x 21 cm. 86 or.
- Aladdin.** (i). DISNEY, Walt/X.X.//Everest. León. 21 x 27 cm. 48 or.
- Aladino (3).** (i). X.X./X.X.//Ttarttalo. Donostia. 23 x 16,5 cm. 20 or.
- Aladino eta kriseilu miragarria.** (b/i). JORDAN, Julián; LOPEZ, Eva/ELIZEGI, Patxi//JORDAN, Julián; LOPEZ, Eva. Tarttalo. Donostia. 31 x 23,5 cm. 44 or.
- Alegia deus ez!** LEON, Léon//TOUYAROU, Elene - Phagaburu*/Elkar. Donostia. 21 x 13,5 cm. 196 or.
- Ali Baba eta berrogei lapurrak.** (i). X.X.//ZUBIZARRETA, Patxi*/VILLATE, A. Pamiela. Iruña. 19 x 13 cm. 78 or.
- Alpeen itzalpean.** ELEXPURU, Juan Martin. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 160 or.
- Altzairuen Diseinurako Metalurgia Fisikoa.** RODRIGUEZ IBABE, J.M. eta beste. Elkar. Donostia. 24 x 17 cm. 480 or.
- Amazonia-ko misterioa.** (b). GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 19 x 14 cm. 120 or.
- Amets geometrikoak / Sueños geométricos.** (e). AMONDARAIN, J.R. eta beste. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 23 x 25 cm. 75 or.
- Ametsen interpretazioa.** GIZA ZIENTZI-TALDEA. Gaiak. Donostia. 24 x 16 cm. 76 or.
- Ametsetan galduta.** (b). GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 19 x 14 cm. 166 or.
- Amodio barregarriak.** (i). KUNDERA, Milan/CID ABASOLO, Karlos//Erein. Donostia. 20,5 x 13 cm. 256 or.

- Amorebieta-Etxano.** (e). SESMERO CUTANDA, Enriqueta. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 24 x 17 cm. 200 or.
- Amoroto, Gizaburuaga eta Mendexa.** (i). MARTINEZ FERNANDEZ, Inmaculada/HORI-HORI//Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 24 x 17 cm. 192 or.
- Analisis egiteko maketak: ESO.** (i). GRUPO GALILEO 2000//RODRIGUEZ MATEOS, Carlos**/Alecop. Arrasate. 30 x 21 cm. 67 or.
- Ander Deuna Ikastola: 25. urteurrena 1968-1993.** ASKOREN ARTEAN. Ander Deuna Ikastola. Sopela. 24 cm. 112 or.
- Andoingo toponimia.** USABIAGA FLORES, Amaia. Euskaltzaindia. Bilbo. 26 x 17 cm. 410 or.
- Andre Catalina eta Arabia-ko emir-a.** (b). GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16 x 11 cm. 160 or.
- Animaliategia.** (i). MURO, Angel/ERDOZAIN, Aurelio//ENCINAS, Elena. Gero (Mensajero). Bilbo. 16,5 x 13,5 cm. 48 or.
- Animalien biltzarra.** (i). KASTNER, Erich/OSSA, Joseba. Alfaguara. Madrid. 20 x 12 cm. 104 or.
- Animalien etxea.** (i). JELENKOVICH, Barbara/X.X.//JELENKOVICH, Barbara. Ttartalo. Donostia. 20,5 x 10,5 cm. 16 or.
- Ankerki.** MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 212 or.
- Antolamendu eta gestio teknikak: ESO.** (i). GRUPO GALILEO 2000//RODRIGUEZ MATEOS, Carlos**. Alecop. Arrasate. 30 x 21 cm. 42 or.
- Anton Yeregui.** YEREGUI, Antón. Itzaropena. Zarautz. 23 x 13 cm. 60 or.
- Antonello Euskal Herrian.** (b). GEREÑO, Xabier. Egile editore. Bilbo. 16 x 11 cm. 150 or.
- Antsigar erregea.** (i). ALCOTT, Louise May/MIELGO, Roberto//ROTAETXE, Mikel. Gero (Mensajero). Bilbo. 16,5 x 13,5 cm. 48 or.
- Antzerkia ikasetzear.** MINABERRY, Marijane. Gero (Mensajero). Bilbo. 18,5 x 12,5 cm. 56 or.
- Antzinako Eibar.** SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE, Juan. Eibarko Udala. Eibar. 24 x 17 cm. 180 or.
- Antzoki iluna. 10. Malentxo, alargun.** LABAIEN, Antonio Maria//ZUBIMENDI, Jose Ramon*. HABE. Donostia. 21 x 15 cm. 97 or.
- Antzoki iluna. 11. Petrikilo.** LABAIEN, Antonio Maria//ZUBIMENDI, Jose Ramon*. HABE. Donostia. 21 x 15 cm. 35 or.
- Antzoki iluna. 12. Gizon bizarpeitutik eta emazte bizartsutik...** LABAIEN, Antonio Maria//ZUBIMENDI, Jose Ramon*. HABE. Donostia. 21 x 15 cm. 40 or.

- Antzoki iluna. 13. Euskal Eguna.** LABAIEN, Antonio Maria//ZUBIMENDI, Jose Ramon*. HABE. Donostia. 21 x 15 cm. 93 or.
- Antzoki iluna. 14. Jokoa ez da errenta.** LABAIEN, Antonio Maria//ZUBIMENDI, Jose Ramon*. HABE. Donostia. 21 x 15 cm. 94 or.
- Aprendiz postu bila nabil.** (i). NOACK, Hans-Georg/AUZMENDI, Lurdes. Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 x 11 cm. 232 or.
- Apunte eta ahanzturak.** LINAZASORO, Karlos. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia. 21 x 13,5 cm. 61 or.
- Arabiako gau-ipuinak.** (i). X.X./MENDIGUREN, Iñaki//ORTIZ, Jose Mari. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 76 or.
- Arantzazu: tradizioa eta abangoardia.** KORTADI, Edorta//ELIZEGI, Antton. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 28 x 21 cm. 72 or.
- Ardatz: giza-natur arloa. 5 B-D ereduak.** (b). URMENETA GALFARSORO, Juan Luis. Bruño. Madrid. 27 x 19 cm. 200 or.
- Ardatz: giza-natur arloa. 5 B-D ereduak. Ariketak.** (b). URMENETA GALFARSORO, Juan Luis. Bruño. Madrid. 27 x 19 cm. 200 or.
- Argia 3 (Erlijio katolikoa). Gida. Lehen Hezkuntza. 2. zikloa.** URMENETA, Juan Luis eta beste//SANCHEZ, Esmeralda. Bruño. Madrid. 29 x 21 cm. 176 or.
- Argia 3 (Erlijio katolikoa). (Lanerako fitzak). Lehen Hezkuntza. 2. zikloa.** URMENETA, Juan Luis eta beste//GONZALEZ, Mari Fe. Bruño. Madrid. 29 x 21 cm. 160 or.
- Argia 3 (Erlijio katolikoa). Lehen Hezkuntza. 2. zikloa.** URMENETA, Juan Luis eta beste//GONZALEZ, Mari Fe. Bruño. Madrid. 29 x 21 cm. 80 or.
- Argia 4 (Erlijio katolikoa). Gida. Lehen Hezkuntza. 2. zikloa.** URMENETA, Juan Luis eta beste//SANCHEZ, Esmeralda. Bruño. Madrid. 29 x 21 cm.
- Argia 4 (Erlijio katolikoa). Lehen Hezkuntza. 2. zikloa.** URMENETA, Juan Luis eta beste//SANCHEZ, Esmeralda. Bruño. Madrid. 29 x 21 cm. 96 or.
- Argitalpen Katalogoa. Euskaltzaindia.** BADIOLA, Ricardo. Euskaltzaindia. Bilbo. 21,5 x 12 cm. 96 or.
- Arkatza 1 Hiruhilekoa.** (b). AKAITURRI, M. eta beste//CURTO, R.M.; CRUZ, V. Giltza-Edebé. Sondika. 21 x 27 cm. 290 or.
- Arkatza 2 Hiruhilekoa.** (b). AKAITURRI, M. eta beste//CURTO, R.M.; CRUZ, V. Giltza-Edebé. Sondika. 21 x 27 cm. 282 or.
- Arkatza 3 Hiruhilekoa.** (b). AKAITURRI, M. eta beste//CURTO, R.M.; CRUZ, V. Giltza-Edebé. Sondika. 21 x 27 cm. 274 or.

- Arkatza. Gidaliburua.** POLO MANYA, M.A. eta beste//CURTO, R.M.; ESCARRA, C. Giltza-Edebè. Sondika. 30 x 25 cm. 696 or.
- Arkeoikuska 92. Arkeologi ikerketa. Investigación arqueológica.** (e). KULTURA SAILA (E.J.)/LUMA, O.E./AROSTEGI, M. Jose. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 22 x 23 cm. 350 or.
- Arkotzatarrak euskal antzerkian.** ARKOTXA, Jesus; ARKOTXA, Jose Antonio.
- Arrain beltz txikia.** (i). BEHRANGHI, Samad/MARIN, Isa. Txalalparta. Tafalla. 19 x 13 cm. 64 or.
- Arrakasta hizkuntza arrotzetan. Zazpi ikaslek nola lortu duten.** (j). STEVICK, Earl W./LARRAMENDI, Usua. HABE. Donostia. 21,5 x 14,5 cm. 200 or.
- Arranegi.** ERKIAGA, Eusebio. Labayru. Bilbo. 21 x 14,5 cm. 203 or.
- Arrasate gure herria.** RAMIREZ DE OKARIZ, Iñigo. Arrasateko Udala. Arrasate. 28 x 19 cm. 168 or.
- Arrasate Lehiaketak 92.** (i). ARREGI, Ane eta beste/ARANA ARRIETA, Coro. Arrasate Euskaldun dezagun Elkarte. Arrasate. 30 x 21 cm. 112 or.
- Arratsalde euritsua.** (b/i). LEONARD, Marcia/ORMAZABAL, Jo-xantonio. Timun Mas. Barcelona. 20 x 20 cm. 24 or.
- Arrigorriagako eleizatearen monografia.** (i). RAMOS MARTIN, Felipe/ARTARAZ, Jabi. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 23 x 16,5 cm. 263 or.
- Artearen eta kulturaren arteko tensioak mende amaieran.** JARAUTA MARION, Francisco. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 20 x 15 cm. 126 or.
- Artearen Historia 2 -UBI.** UZEI. Elkar. Donostia. 24 x 17 cm. 284 or.
- Arturo Kanpion (1854-1937).** (i). GRANJA PASCUAL, Jose Javier/BIGURI, K./INTXAUSTI, Joseba*. E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 23,5 x 22 cm. 16 or.
- Arturo Kanpionen bost euskal narrazio.** (i). KANPION, Arturo/ETXAIDE, Jon. Erein. Donostia. 20 x 13 cm. 208 or.
- Artzain gezurtia.** (i). X.X./ELIZEGI, Patxi. Ttartalo. Donostia. 17 x 24,5 cm. 12 or.
- Askatasunetik iheska.** (i). FROMM, Erich/GABIKAGOGEOSKOA, Alberto. Klasikoak. Bilbo. 23 x 15 cm. 243 or.
- Asmakizun polita.** (b/i). ALCANTARA, Ricardo/ORMAZABAL, Jo-xantonio//CURTO, Rosa M. Elkar. Donostia. 19 x 17,5 cm. 24 or.
- Astakiloak jo eta jo.** ATXAGA, Bernardo//AGINAGALDE, Gorka. Elkar. Donostia. 18,5 x 13 cm. 154 or.
- Asterix eta Normandoak.** (i). Gosciny/AZURMENDI, Joxemari//UDERZO. Elkar. Donostia. 29 x 21 cm. 50 or.

- Asto-bahitzaileak.** (i). DURRELL, Gerald/OTXOA, Agustin. Zubia. Leioa. 20 x 15 cm. 37 or.
- Astoa eta idia.** (i). X.X./ELIZEGI, Patxi. Ttartalo. Donostia. 17 x 24,5 cm. 12 or.
- Atari ahantziak.** ARKOTXA, AURELIA. Pamiela. Iruña. 19 x 13 cm. 86 or.
- Atariko probak. Gabriel Aresti Euskaltegia.** ANSELMI, Luigi. Tinkoketa. Bilbo. 40 x 30 cm. 150 or.
- Ateak zabalik dituen presondegia.** (i). TERLOUW, Jan/BIGURI, Koldo. Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 x 11 cm. 262 or.
- Ateismoa Kristautasunean.** (i). BLOCH, Ernest/ZABALETA, Pedro Martin. Klasikoak. Bilbo. 23 x 15 cm. 315 or.
- Atzapar arrastoak.** (b/i). LANDON, John/MENDIGUREN, Iñaki. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 68 or.
- Atzerriko Hizkuntzen irakaskuntza Lehen Hezkuntzan. 2. Ziklorako Orientabide Didaktikoak / La enseñanza de lenguas extranjeras en la Educación Primaria. Orientaciones didácticas para el 2º Ciclo.** (e). HEZKUNTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 21 cm. 64 or.
- Aurkakoak.** (i). X.X./X.X. Ttartalo. Donostia. 30 x 24 cm. 24 or.
- Aurten aldatuko da nire bizitza.** (b). URRETABIZKAIA, Arantxa. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 92 or.
- Autoa.** (i). CREWS, Harry/MATAUKO, Eduardo; ADDIS, Kristin. Susa. Lasarte-Oria. 20 x 12,5 cm. 167 or.
- Axelko- Zikloko Gidaliburua.** ASKOREN ARTEAN//TELLERIA, J.M.; ODRIOZOLA, E. Elkar. Donostia. 27 x 21,5 cm. 312 or.
- Azeria eta otsoa.** (i). X.X./ELIZEGI, Patxi. Ttartalo. Donostia. 17 x 24,5 cm. 12 or.
- Azken brontze aroa eta burdin aroa Euskal Herrian.** OLAETXEA, Karlos; PEÑALVER, Xabier. Gero (Mensajero). Bilbo. 18,5 x 12,5 cm. 72 or.
- Azken fusila.** JIMENEZ, Edorta. Susa. Lasarte-Oria. 20 x 12,5 cm. 228 or.
- Azkoiti. Gure kirol dantza ta jolasak.** ARANBARRI ETXANIZ, Simon. Lit. Danona. Azkoitia. 20 x 15 cm. 200 or.
- Aztiaren Etxea.** (b/i). PICANYOL/ORMAZABAL, Joxantonio//PICANYOL. Elkar. Donostia. 24 x 22 cm. 24 or.
- Azul. Donostia / San Sebastián.** (e). SCHOMMER, Alberto; MUJKA, Inazio; BERMEJO, Alvaro. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia. 29,5 x 32 cm. 177 or.
- Babilonia.** (b). IRIGOIEN, Joan Mari. Elkar. Donostia. 19 x 12 cm. 232 or.

- Bacchabunda.** (b). ANSELMI, Luigi. Pamiela. Iruña. 19 x 13 cm. 59 or.
- Baga Biga - Haurtxoa - Logika.** GOÑI, Jesus Mari//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24,5 x 19 cm. 73 or.
- Baga Biga - Matematika 6.** GOÑI, Jesus Mari//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24,5 x 19 cm. 340 or.
- Baga-Biga 5 - Ariketak B.** GOÑI, Jesus Mari//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24,5 x 19 cm. 60 or.
- Baga-Biga 5 -Matematika.** GOÑI, Jesus Mari//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24,5 x 19 cm. 240 or.
- Baga-Biga Ariketak-B.** GOÑI, Jesus Mari//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24 x 19 cm. 60 or.
- Bakarka 4.** MUJIK, Jose Antonio//TOQUERO, Julian. Elkar-GIE. Donostia. 27 x 20 cm. 288 or.
- Bakean utzi arte.** BORDA, Itxaro. Susa. Lasarte-Oria. 20 x 12,5 cm. 212 or.
- Bala zeru urdina.** ALDAI, Xabier. Susa. Lasarte-Oria. 20 x 12,5 cm. 65 or.
- Banpiro txikia.** (i). SOMMER-BODENBURG, Angela/MONASTERIO, Xabier. Zubia. Leioa. 20 x 12 cm. 184 or.
- Bapatean 92.** ASKOREN ARTEAN. Euskal Herriko Bertsolari Elkar-
tea. Donostia. 21 x 13,5 cm. 298 or.
- Barakaldo.** (e). IBÁÑEZ GOMEZ, Maite. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 24 x 17 cm. 200 or.
- Barbantxo.** (i). GOOL, Van/ELIZEGI, Patxi//GOOL, Van. Ttarttalo. Donostia. 31 x 23,5 cm. 44 or.
- Basamortuko gauak.** MIELGO, Roberto//MIELGO, Idoia. Gero (Mensajero). Bilbo. 16,5 x 13,5 cm. 48 or.
- Basapiztien kumeak.** (i). JELENKOVICH, Barbara/X.X.//JELENKOVICH, Barbara. Ttarttalo. Donostia. 20,5 x 10,5 cm. 16 or.
- Basauriko San Migel Historia eta Artea.** (i). VELILLA IRIONDO, Jaione/HORI-HORI. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbo. 24 x 17 cm. 207 or.
- Baserria.** (e). SANTANA EZQUERRA, Alberto. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 28 x 21 cm. 108 or.
- Baserria.** (i). X.X./X.X. Ttarttalo. Donostia. 30 x 24 cm. 24 or.
- Baserriko animalitxoak.** (i). X.X./X.X. Ttarttalo. Donostia. 29 x 22,5 cm. 10 or.
- Basoa.** (i). X.X./X.X. Ttarttalo. Donostia. 30 x 24 cm. 24 or.
- Basoa sutan (3).** (i). X.X./X.X. Ttarttalo. Donostia. 18 x 20 cm. 10 or.
- Basoko loti ederra.** (i). JORDAN, Julian; LOPEZ, Eva/ELIZEGI, Patxi//JORDAN, Julian; LOPEZ, Eva. Ttarttalo. Donostia. 31 x 23,5 cm. 44 or.

- Bat, bi, hiru (ekitaldi bakarreko antzerkia).** ODRIOZOLA, Imanol Elias. Gero (Mensajero). Bilbo. 18,5 x 12,5 cm. 72 or.
- Batasunaren deia.** (i). LONDON, Jack/MENDIGUREN, Iñaki//JØRGENSEN, Oskar. Elkar. Donostia. 18 x 11 cm. 78 or.
- Batzilergoa erreformaren bidean / Bachillerato la reforma en marcha.** (e). HEZKUNTZA SAILA (E.J.). E.J. Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. Gasteiz. 21 x 21 cm. 152 or.
- Bederatzi gutun t'erdia.** (b). ITURRALDE, Joxemari. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 144 or.
- Begirada bat.** BILBO ZAHARRA TALDEA. Bilbo Zaharra. Bilbo. 32 x 24 cm. 5 or.
- Behi euskaldun baten memoriak.** (b). ATXAGA, Bernardo. Pamie-la. Iruña. 19 x 13 cm. 180 or.
- Beloke-ko abatetxearen historia: ehun urte jainkosemen alde (1875-1975).** DIHARCE, Xabier "Iratzeder". Gero (Mensajero). Bilbo. 18,5 x 12,5 cm. 56 or.
- Belledonne, 16. gela.** (i). VRIES, Anke de/IGERABIDE, Juan Kruz. Desclée de Brouwer. Bilbo. 19 x 11 cm. 200 or.
- Bene-benetan 1. Lan-koadernoak. Euskara.** AMATRIA, Xabier//PELNADOR, Angeles. Zubia. Leioa. 28 x 21 cm. 50 or.
- Bene-benetan 3. Euskara.** MORALES, José; RODRIGUEZ, Jokin//ORDOZGOITI, Iñigo. Zubia. Leioa. 28 x 21 cm. 128 or.
- Bene-benetan 3. Gidaliburua - L. Hez.** ASKOREN ARTEAN. Zubia. Leioa. 31 x 24 cm. 56 or.
- Bene-benetan 4.** ASKOREN ARTEAN. Zubia. Leioa. 28 x 21 cm. 128 or.
- Bene-benetan 4. Gidaliburua.** ASKOREN ARTEAN. Zubia. Leioa. 31 x 24 cm. 56 or.
- Benjamin untzi txikiaren ipuina.** (i). POTTER, Beatrix/GILLENENA, Idoia; LEGORBURU, Garbiñe. Desclée de Brouwer. Bilbo. 15 x 11 cm. 60 or.
- Beranduko lanak: bizitza eta bertsoak.** (b). LASARTE, Manuel. Auspoa. Tolosa. 24 cm. 490 or.
- Berri eta zaharra.** (i). LOBE, Mira/CEBEIRO BERGER, Gabriel. SM. Madrid. 19 x 12 cm. 62 or.
- Berriketan 4. Ikaslearen liburua.** GABRIEL ARESTI EUSKALTEGIKO DIDAKTIKA TALDEA. Tinkoketa. Bilbo. 40 x 30 cm. 192 or.
- Berriketan 4. Irakaslearen liburua.** GABRIEL ARESTI EUSKALTEGIKO DIDAKTIKA TALDEA. Tinkoketa. Bilbo. 40 x 30 cm. 130 or.
- Berriketan 6.** GABRIEL ARESTI EUSKALTEGIKO DIDAKTIKA TALDEA. Tinkoketa. Bilbo. 40 x 30 cm. 130 or.

- Berriketan 6. Irakaslearen liburua.** GABRIEL ARESTI EUSKALTEGIKO DIDAKTIKA TALDEA. Tinkoketa. Bilbo. 40 x 30 cm. 145 or.
- Berritsu 1-2. Gidaliburua. B-D ereduak Euskal Hizkuntza eta Literatura.** RUIZ BIKANDI, Uri. Erein. Donostia. 26 x 20 cm. 108 or.
- Berritsuren bidaia arriskutsua.** (i). SOLAS, María José/X.X. Izar. Barakaldo. 23 x 23 cm. 24 or.
- Bertso Galaxia - 5. maila.** ASKOREN ARTEAN//LEOZ, Mikel. Elkar. Donostia. 24,5x 19 cm. 120 or.
- Bertsolari Eguna 94.** EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI ELKARTEA. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia. 21 x 13 cm. 160 or.
- Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak.** ETXEZARRETA, Jesus Mari IZAZPI. Sendoa. Oiartzun. 24 x 17 cm. 481 or.
- Bertsoz bertso.** (b/i). ASKOREN ARTEAN/ASTRAIN, Luis. Elkar. Donostia. 22,5 x 20 cm. 64 or.
- Berunezko Soldadutxo.** (b/i). ANDERSEN, H.C./ORMAZABAL, Jo-xantonio//GABAN, Jesús. Elkar. Donostia. 19 x 17,5 cm. 32 or.
- Berunezko soldadutxo.** KINTANA, Xabier. Izar. Barakaldo. 17 x 12 cm. 8 or.
- Bi anai.** (b). ATXAGA, Bernardo. Erein. Donostia. 20 x 13 cm. 112 or.
- Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian.** (b). ATXAGA, Bernardo. Erein. Donostia. 19 x 12,5 cm. 94 or.
- Bi sagu bihurriren ipuina.** (i). POTTER, Beatrix/GILLENEA, Idoia; LEGORBURU, Garbiñe. Desclée de Brouwer. Bilbo. 15 x 11 cm. 60 or.
- Bi ta Bi 3 (Batueraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//SARASOLA, J.A.; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/FERNANDEZ PINILLA, Juan eta beste. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 200 or.
- Bi ta Bi 3 (Batueraz) Gida.** (i). BARRANCO, José eta beste//SARASOLA, J.A.; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/FERNANDEZ PINILLA, Juan eta beste. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 264 or.
- Bi ta Bi 3 (Bizkaieraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//ARTARAZ, Jabi; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/FERNANDEZ PINILLA, Juan eta beste. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 200 or.
- Bi ta Bi 3 (Bizkaieraz) Gida.** (i). BARRANCO, José eta beste//ARTARAZ, Jabi; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/FERNANDEZ PINILLA, Juan eta beste. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 264 or.

- Bi ta Bi 3 Prozedura koaderno I (Batueraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//SARASOLA, J.A.; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/SANCHEZ, Francisco Tomás. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 48 or.
- Bi ta Bi 3 Prozedura koaderno I (Bizkaieraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//ARTARAZ, Jabi; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/SANCHEZ, Francisco Tomás. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 48 or.
- Bi ta Bi 3 Prozedura koaderno II (Batueraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//SARASOLA, J.A.; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/SANCHEZ, Francisco Tomás. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 48 or.
- Bi ta Bi 3 Prozedura koaderno II (Bizkaieraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//ARTARAZ, Jabi; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/SANCHEZ, Francisco Tomás. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 48 or.
- Bi ta Bi 3 Prozedura koaderno III (Batueraz).** (i). BARRANCO, José eta beste//SARASOLA, J.A.; ALZOLA, Mari Karmen; GORROTXATEGI, Sabin*/SANCHEZ, Francisco Tomás. Ibaizabal. Euba. 26,5 x 19,5 cm. 48 or.
